



ORIOKO BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA ETA UDAL PLANAREN DISEINUA



2013ko MARTXOA

BEHIN BEHINEKOA



Behin behineko



AURKIBIDEA

1.	JUSTIFIKAZIOA	3. or.
2.	BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN DIAGNOSTIKOA	6. or.
	I. Helburuak	6. or.
	II. Marko Orokorra	7. or.
	1. Kontzeptuen azalpena	7.or
	1. Giza Eskubideak	
	2. Bizikidetza	
	3. Gatazka	
	2. Erakundeen Marko Legislatiboa	10. or.
	1. Nazioarteko Testuinguruan	
	2. Estatu Mailan	
	3. Euskal Autonomi Erkidego Mailan	
	III. Metodologia	14. or.
	IV. Errealitate azterketa laburra	16. or.
	V. Elkarrikeraketa sakonen informea	24. or.
	VI. Eztabaida Taldeetako informea	35. or.
	1. Udal Langileak	37. or.
	2. Hezkuntza Arloa	46 or.
	3. Elkarrikerak	53. or.
	VII. Ondorio nagusiak	62. or.
3.	UDAL PLANAREN ILDO NAGUSIAK	67. or.



1. JUSTIFIKAZIOA

Azken urteotan hiritarren arteko Bizikidetzaren inguruan aldaketa nabaria egon dela esan genezake. Indibidualismoa, kontsumismoa, lehiakortasuna, aldaketa sozialak, e.a. pertsona, talde eta elkarteen Bizikidetzan zuzenean eragiten ari diren elementuetako batzuk direla esan genezake.

Erakundeek aldioro zailagoak eta konplexuagoak diren arazoei aurre egin behar diete. Erakunde eta esparru ezberdinetan suertatzen diren gatazka eta problematikak dira, pertsonen Bizikidetzan indarrez eragiten, Bizikidetza zailagoa eta konplexuagoa bilakatzen ari denaren antza emanez.

Testuinguru honetan, ez dago erakunderik egoera hauek bakarrik bidera ditzakeenik. Orokorrean, egoera hauei aurre egiteko bide berriak eta irudimenezkoak sustatu behar dira eta horretarako, Udaleko beste eragile eta hiritarren parte-hartzerako kanalak irekitzea garrantzitsua dela irizten da.

Honela bada, gizarte berri honetan, komunikaziorako bide berriak eraiki eta pertsona, herri eta kulturen arteko mugak lausotzen diren gizarte honetan, Bakean bizitzea egunetik egunera orokortuagoa den eskaera bat da, eta Euskal Herrian, modu sendoagoz.

Indarrean dagoen Bakerako Hezkuntza eta Giza Eskubideen aldeko Euskal Planak, **“Bizikidetasun Demokratikoa eta Indarkeria Deslegitimatzea 2010 – 2011”**. Herri Erakundeek garrantzia azpimarratzen du oinarritzko eragile bezala, herritarren gertuko eta lehen erakundea, justiziaren, askatasunaren, berdintasunaren eta elkartasunaren oinarrien gainean eraiki nahi den edozein gizarte eta politika-antolamendu eredurentzat Giza Eskubideak eta Bakea ezinbesteko erreferenteak direlako.



Orioko Udal eragileak, arlo honetan duten erantzukizunaz jabetzen dira eta benetako Bizikidetza, Giza Eskubideak eta Bakerako Kulturaren garapenean erakunde publikoek gizarte osoa zuzentzeko erronka onartu behar dutela uste osoa dute. Honela bada, aipaturiko bidean aurrera egiteko, Bizikidetzaren hobekuntza sustatzeko duten ardura onartu dute.

Horretarako, EDE Taldeko Bakeola-ri, Gazketetarako Bitartekaritza zentroa, ikerketa burutzea eskatzen zaio.

Bakeola eta Udaleko arduradunekin lanaren nondik norakoa adostu ondoren, 2012ko ekainean ikerketari hasiera ematen zaio, abenduaren 31erako behin betiko dokumentua izateko konpromisoarekin.

Jarraian aurkeztuko den dokumentuak, Orioko Udaleko arduradunen berrikuspen eta ekarpenak jaso ondoren, behin betiko Bizikidetza eta Giza Eskubideen Udal Plana diseinatzeko egindako diagnostiko parte hartzailea jasotzen du.

Orioko udalerrian garatutako ikerketa honen sustapena diruz lagundutako Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz bultzatu da.



2. BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN DIAGNOSTIKOA

I. HELBURUAK

Ikerketa honen **xedea** diagnostiko parte-hartzaile bat gauzatzea da, eragile ezberdinek Orioko Bizikidetza eta Giza Eskubideen inguruan duten ikuspegia jasoko duena.

Horretarako, **lanerako zehazturiko helburuak** hauek dira:

- ✓ **Herriko eragile ezberdinek Orioko Bizikidetzaren inguruan dituzten pertzepzioak jasoko duen diagnostiko parte hartzailea egin.**
 - Ordezkarikari politikoek Orioko Bizikidetzaren inguruan daukaten ikuspuntua eta balorazioa ezagutu.
 - Udal teknikariak eta gizarte eta hezkuntza sareak herriko Bizikidetzaren inguruan daukaten pertzepzio eta balorazioak jaso.
 - Egunerokotasunean, ohiko diren gatazkak eta giza urraketa esanguratsuenetan sakondu, eta errealitate ezberdinetako proposamenak eta eskaerak jaso: ikastetxeak, elkartegintza, etab.
- ✓ **Udal Bizikidetza Plana diseinatu, non hurrengo urteetako ildo estrategikoak eta lehentasunezko lanerako ardatzak definituko diren.**
 - Orioko udalerrirako arlo honi dagozkion etorkizunerako ildo ezarri.



II. MARKO OROKORRA

1. KONTZEPTUEN AZALPENA

Jarraian laburki bada ere, kontzeptu batzuetara gerturatzea garrantzitsua da Bizikidetza eta Giza Eskubideen inguruan oinarritzko ideia bat izateko.

1.1. GIZA ESKUBIDEAK

Bizitza duin bat ziurtatzeko, hainbat filosofia eta fundamentazioen arabera, pertsona orok, pertsona izanagatik bakarrik bereak dituen oinarritzko eskubide eta askatasunak dira Giza Eskubideak. Indarrean dagoen zuzenbide positiboa edo eta bakoitzak izan ditzakeen berezko faktore ezberdinetatik aparte, hala nola estatusa, etnia edo nazioanitatea.

Eskubide hauek, pertsonarenak dira, berezkoak, ezeztaezinak, alienaezinak eta beraz, ezin dira transmititu ez eta ukatu ere: inor ezin da mirabe bezala saldu, adibidez. Definizioz, Giza Eskubideen kontzeptua unibertsala da, berdintasunean oinarritua eta bateraezina kasta, etnia, herri, talde edo klase sozial zehatz bat gailentzen duen sistemekin.

Gaur egun, II Mundu mailako Gerraren ostean, 1948an sinatu zen Giza Eskubideen Hitzarmena erreferente etiko eta morala da. Estatuak marko legal batekin hornitu nahi zuten hiritarrei eskubide eta beharrak zehazte aldera. Aipaturiko Hitzarmen hau ez da beti unibertsala izan eta hortaz, ez dio populazio osoari eragin.

1948an sinaturiko “Giza Eskubideen Hitzarmen Unibertsala”, Nazio Batuetako Batzar Nagusiak onartu zuen izan zitezkeen 58 botoetako 48 lortuz.

Aipatu beharra dago, azken urteotan, 1948ko Hitzarmena zabaltzearen beharra azpimarratu dutenak egon badaudela. Horrela, Afrikako Batasunaren aldeko Elkartek, 1981ean “Afrikako Giza Eskubide eta Herrien Eskubideen Gutuna” sinatu zuen. Bertan, Hitzarmen Unibertsala berrestez gain, Afrikari urteetan ukatu zitzaizkion beste eskubide batzuk ere jasotzen dira: determinazio librerako eskubidea eta atzerriko ekonomia mota guztietako zapalkuntzak desagertaraztea Estatu guztien betebeharra izatea.



1.2. BIZIKIDETZA¹

Bizikidetzaz hitz egiten dugunean, pertsona edo egoera anitzetan izan daitezkeen harreman ezberdinak aipatzen dira. Izan ere Bizikidetza egon dadin, bi pertsona gutxienez harremanetan jartzea ezinbestekoa da eta hortaz, ezberdinak diren bi sujeto elkartzen dira.

Honela, pertsona bakoitzak duen ezberdintasunetatik abiatuz, osotasunerantz garaman ideia bat dela esan liteke. Pertsona bakoitzaren berezitasunak, aniztasuna dakar eta elkarrekin harremandu ahal izateko, osagarriak izatea ezinbestekoa da maila batean gutxienez. Gainera, pertsona bakoitzak bizitza bera ulertu eta disfrutatzeko moduak ditu, balio-eskala zehatz bat eta batzuetan, hauen arteko tira birak direla eta, elkarrekin bizitzeko zailtasunak agertzen dira.

Beraz, orokorrean, elkarrekin bizi eta harremantzeko, bakoitzak bizitzeko bere moduak dauzka, bere pentsamoldeak, iharduteko erak eta pentsatzekoak eta guzti hauek partaide den komunitatearen helburuekin bat datoz. Hala izango ez balitz, komunitatearen baitan pitzadurak egongo lirateke. Nahiz eta pitzadura hauek elementu ezezkorrak bailiran ikusten diren, besteekin dugun harremanetan agertzen diren tentsioak besterik ez dira. Pertsona edo talde bakoitzak helburu ezberdinak dituelako (ezberdintasun eta tentsio horren ondorioz), sahestezinak diren gatazkak azaleratzen dira, komunitateko Bizikidetzan eraginez. Horregatik, Bizikidetzaren azterketak prozesu sozialen baitan burutu behar dira.

Hortaz, Bizikidetzak pertsona ezberdinen edo partaide diren taldeen arteko harremanak definitzen ditu, eta esan bezala, esperientzia multzo hori batzuetan armonikoa da eta bestetan ez.

¹ Buatu Batubenge Omer, Adriana Mancilla Margalli eta Benjamín Panduro Muñoz-en bizikidetzaren inguruan egindako definizioaren zati bat.



1.3. GATAZKA

Jarraian, gatazka kontzeptuaren inguruan oinarrizko ideia batzuk azalduko dira, hau izango baita Orioko Udal Planaren oinarrian kontutan izango den perspektiba.

Aniztasunarekin elkar bizitzeak gatazka egotea eragiten du, baina honek ez du biolentzia dagoenik esan nahi. Gatazkaren dinamikaren aurrean jokabide ezberdinak daudela esan daiteke eta lankidetzaren bidearen alde egiteak duen garrantzia azpimarratu behar da; izan ere, taktika honi esker, bi alderdiek irabazi egiten dute eta inork ez du galtzen.

Oso zabaldurik dagoen ideia bat egon badago: gatazka ezezkorra dela dioena, eta beraz, saihestu beharreko zerbait dena. Ideia honen funtsean, hainbat arrazoi aurki daitezke. Besteak beste:

- Gatazkan pentsatzen denean, hauei aurre egiteko edo “konpontzeko” era zehatz batekin lotzen da: biolentzia, alderdiren baten ezeztatzea edo desagertaraztea, eta ez da hainbeste lotzen bidezko eta alderdientzako egokia den irtenbide batekin, nahiz hauek ere bideratzeko moduak diren.
- Pertsona guztiok jakin badakigu gatazka bati aurre egiteak energia eta denbora asko eskatzen duela, eta batzuetan, oso atseginak ez diren une batzuk pasa arazten dituela. Askotan baliabide eta trebetasun falta izan daiteke arrazoia.

Horregatik da hain garrantzitsua gatazkaren ikuspegi baikorrean sakontzea. Gatazkek gizakiaren izanarekin bat egiten du, alegia, izaki soziala den heinean eta beste gizakiekin harremanetan jartzen den unean iritzi desberdinak izango dituztela, eta baita interes eta behar kontrajarriak ere. Gatazka, saihestezina izateaz gain, nahiz eta begiak itxi edo eta ekidin, bere dinamika propioa jarraitzen du. Bizia da eta pertsonak ihes egin arren, bere garapena jarraitzen du uneoro handiagotuaz eta aldioro gobernatzea zailduaz.

Guzti honek sortzen duen erronka hau da: gatazkek era eraikitzaile eta ezbiolento batean aurre egin eta ebazteko bideak adostea. Eta horretarako gatazka zer den ulertzea eta bere



osagaiak zeintzuk diren jakitea, eta baita hauei aurre egiteko beharrezkoak diren jarrerak eta estrategiak garatzea ezinbestekoa da. Bide horretan ere, gatazkari aurre egitea sakoneko arrazoieta bideratzen duen prozesua garatu behar da. Hala eta guztiz ere, gatazka bat bideratu ondoren, ez du berriak sortuko ez direnik ziurtatzen. Hortaz, gatazkarekin bizitzen ikastea ezinbestekoa da bai eta hauek bide egokiaren bidez eraldatzea ere.

2. ERAKUNDEEN MARKO LEGISLATIBOA

Laburki bada ere, Bizikidetza eta Giza Eskubideen arloan erakunde ezberdinek garatutako marko normatiboko pintzelada bat azaltzen da jarraian kronologikoki sailkatutik.

2.1. NAZIOARTEKO TESTUINGURUAN

1948an Giza Eskubideen Nazioarteko Hitzarmena. Itun honek berezko garrantzia dauka; izan ere, mundu mailan eta lehendabizikoz, pertsona orok pertsona izanagatik Giza Eskubide guztiak errespetatuak eta bermatuak izatea aldarrikatzen baitu. Hala ere, indarrean jarri arren, gaur egun arte ez dira berauek bermatu ituna sinatu zuten herrialdeetan ere.

1993an Vienan Giza Eskubideen Konferentzia² burutu zen Nazio Batuek sustatuta. Bertan elkartu ziren herrialdeek pertsona ororen Giza Eskubideak bermatzea eta sustatzeko hitza eman zuten. Horretarako eta intentzio hutsaletan ez geratzeko, herrialdeen arteko harreman egonkor eta armoniatsuak sustatzea erabaki zuten; era horretan Bakea, tolerantzia eta elkarren arteko errespetua sustatuko litzatekeela uste baitzuten. Jarraian azaltzen dira aipaturiko konferentziaren amaieran hitzartutako ekintza planetik jasotako hainbat gomendio:

- Giza Eskubideen ezagutza eta sustapena egitea.
- Erakunde ezberdinen arteko bilerak egitea. Herrialdean bertan izandako aurrerapausuak aztertu, neurtzeko sistemak hobetu eta esperientzia baikorren berri eman ahal izateko.

² Nazio Batuek 1993ko uztailak 12an adostutako Adierazpen eta programa A/CONF.157/23



- Gobernu ezberdinek Giza Eskubideen ezagutzeko ekimenak sustatu behar dituzte hezkuntza arlotik. Bide berean ere, demokrazia eta giza laguntzaren inguruan heztea proposatzen da.
- Herrialdeei Giza Eskubideak sustatzeko ekintza plan bat diseinatzea proposatzen die.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1995-2004 “Bakerako Hezkuntzaren hamarkada” izendatu zuen. Horrek Giza Eskubideen arloan ekimen ugari aurrera eramatea ekarri zuen.

Europako Parlamentua eta Europako Kontseiluak urtero arlo bati lehentasuna ematearren, “Europar urtea” izendatzen dute. Era horretan europar hiritarrei errealitate horretara gerturatzeaz gain, egitasmo ezberdinak garatu ohi dira egoerak hoberrantza egin dezan. Azpimarratzekoak asko izan arren,

- 2001ean hizkuntzen urtea
- 2005ean hezkuntzaren bidez hiritartasuna
- 2007ean guztientzat aukera berdina
- 2008ean kulturartekotasuna

2.2. ESTATU MAILAN

1978ko Konstituzioa izan zen diktadura ostean Estatu mailan ezarritako marko berria. Berauetan jasotzen dira Giza Eskubideen Hitzarmenean jasotako aldarrikapenak: 10. artikulua zuzeneko aipamena egiten die gizabanakoak dituen oinarritzko eskubideei.

1979/3 Euskal Herriko Autonomia Estatutoak ere hiritarren eskubideen inguruan zehaztapenak egiten ditu eta besteak beste, 9. artikuluan eskubideei egiten dio erreferentzia. Bestalde, Erkidego bezala dituen konpetentziak ere jasotzen dira dokumentu berean, hala nola, 10. artikulutik aurrera, “I.Burua” izeneko ataletik aurrera.

32/1999 Terrorismoko biktimekin elkartasun legea kaleratzen da, Hurrengo urteetan hainbat ekarpen egiten zaizkio terrorismoko biktimei babesa eta Giza Eskubideen sustapena egitera bideraturik. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE aurrerantzean) erralitatea azpimarratzen da modu berezian.

06/2002an Partidu Politikoen lege organikoa, “partiduen legea” deiturikoa adostu zen,



hurrengo urteetan EAEko mapa politikoan zuzenean eragan zuena. Izan ere, legearen ondorioz, partidu politikoak legez kanpo utzi baitziren hurrengo urteetan.

2005eko azaroaren 30ean, 27/2005 Bake kultura eta heziketarako sustapen legea sinatzen da. Lege honek aldeaz aurretik aipaturiko nazioarte mailan adostutako gomendioei erantzunez adosten da.

1631/2006 Errege Dekretuaren bidez “hiritartasunerako hezkuntza” oinarritzko hezkuntzan ezartzen da. Lehen aipaturiko Nazio Batuen egindako gomendioa jarraikiz sustatutakoa. Izan ere, ikasgai honen helburua gazteek Giza Eskubideak ezagutzea, beren arduraz jabetzea eta gizalegezko jarrerak garatzea da.

2007ko abenduaren 26an, 52/2007 “Oroimen Historiko Legea” adostu zen eta bertan Gerra Zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen eskubideak aitortu eta zabaldu eta horien aldeko neurriak ezarri ziren.

2.3. EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGO MAILAN

Hasierako urteetan ez zen plangintza orokor bat egin Giza Eskubideen arloan, Diagnostiko eta programa ezberdinak sustatu ziren arren. Horrela:

1998 urtean “Bakerako Hezkuntza Euskal Herrian. Bakerako hezkuntza sustatu eta garatzeko oinarri eta proposamenak”. Diagnostiko honetan erakunde publiko nahiz bestelako eragileek parte hartu zuten.

Hurrengo urteetan eta sail ezberdinetatik, Bizikidetza eta Giza Eskubideen sustapenak garrantzia hartzen du:

- 2002 urtean “Bizikidetza eta Bakerako Programa” osatu zen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailetik.
- 2003-2006 urteetan, hezkuntza Berriztatze programak ere lehentasuna ematen dio Bizikidetza arloari.
- 2002-2005 Gazte Planak ere, aintzat hartzen ditu balioen hezkuntza eta elkarrizketaren bidez buruturiko gatazken eraldaketa, besteak beste.



2002 urtean, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzen da. Bertatik hainbat egitasmo, aldarrikapen eta era ezberdinetako ekimenak sustatu izan dira.

2002ko azaroren 9an, hainbat lege bestelako proposamenak onartzen dira Bizikidetzeta eta Giza Eskubideetan zuzenean eragiten dutenak. Jarraian onartutako batzuk eta garai horretan, gai hauek sustatzen duten interesaren adierazgarri:

- Gernikako bonbardaketaren biktimei barkamena eskatzeari buruzkoa
- Frankismoa kondenatzeko
- Gerra Zibila zela-eta Eusko Jaurlaritzari eta euskal erakundeei kendu zizkieten dokumentuak itzultzeari buruz
- Oroimen historikoari buruz

2004ko abenduak 30 Euskadirentzat Estatuto Berria “Plan Ibarretxe” adosten da EAEko Legebiltzarrean. Bertan herriak duen erabakitze eskubidearen defentsa egiten da.

4/2005 Legea, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea kaleratzen da. Egun batzuen eta besteen artean benetako parekidetasuna lortzeko bideraturiko egitasmo zabala.

2008-2011ean Bakea eta Giza Eskubideen Hezkuntzarako Euskal Planak argia ikusten du. Bertan, eragile ezberdinen koordinazioa sustatzeaz gain, maila ezberdinetako erakunde publikoen egitasmoak batzen ditu. Lehen aldiz, Bizikidetzeta eta Giza Eskubideak sustatzeko ildo batzuk eta ekimen ezberdinak zehazten ditu EAE mailan. Hala ere 2010 urtean berrikuspen bat egingo zaio biktimen errealitatea azpimarratzeari begira. Horrela, 2010-2011 “Bizikidetzeta Demokratikoa eta Indarkarkeriaren Deslegitimaziorako Plana” kaleratzen da.

2008ko ekainak 19an, 4/2008 “terrorismoko biktimei aitortza eta erreparaziorako legea” onartzen da. EAE mailan, terrorista ekintza bat jasan dutenei babesa eta laguntza emateari begira adostua.

2010eko abenduaren 1ean motibazio politikoko indarkeria egoeran gertatutako Giza Eskubideen urraketen eta sufrimendu bidegabeen biktimak jasotzen dituen txostena aurkezten du Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak. Eta 2011ko martxoaren 31ean, Eusko legebiltzarrak 2011/61 lege bestelako proposamena onartzen du non besteak beste, aipaturiko txostenean aurreikusten den esparru instituzionala eta administratiboa berehala sor dezala eta beharrezko egituraz zein baliabideez horni dezala.

III. METODOLOGIA

Prozesuaren helburuak kontutan izanda, jarraian aurkeztuko den diagnostikoa metodologi ezberdinak erabiliz burutu da. Metodologia parte hartzaileak herritar, elkarte, arlo, sail eta talde ezberdinen Bizikidetza, Bakea eta Giza Eskubideen inguruan parte hartze zuzena ahalbideratuko dute.

Ikerketa parte hartzaile eredu honek, non herriko eragile ezberdinak protagonista diren, herriko ikuspegi orokorra, jakintzaren sustapena eta elkarren arteko hausnarketan laguntzen du. Metodologia honek gainera, ikerketan parte hartzen duten pertsonei proposatzeko aukera eta sustatu nahi diren harreman mota eta Bizikidetza ereduak erabakitzeko aukera ematen die.

Parte-hartzeak, beste esanahien artean, “parte hartu” esan nahi du, kasu honetan, tokian tokiko bizitzako gai publikoen kudeaketan parte hartu. Bere esanahira benetan gerturatuz, *“...politika publikoan zuzenean edo zeharka eragin dezakeen edozein ekintza zuzendua...”* da hiritarren parte-hartzea, ez da helburua, bidea baizik, *“...batzuetan erabakiak hartzen dutenengan eragina izatea eta bestetan berriz, zer nolako erabakiak hartu behar diren zehaztea...”*.

Diagnostikoaren atal hau aurrera emateko erabilitako metodologia kualitatiboa eta parte hartzailea izan da. Alde batetik, eragile politikoak azkeneko urteetan sustatutako lanaren balorazioaren zuzeneko ezagutza beharrezkoa baloratu da. Lehen momentu honetan, gehien interesatzen zaiguna, herriko Bizikidetzaren egoeraren inguruan egiten duten diagnostikoan sakontzea da, Bizikidetza eta Giza Eskubideen inguruko ideien subjektuarterako esanahiak ulertu eta interpretatu. Gai hauek edonola ateratzen ez direnez, erabilitako metodologia kualitatiboa da gehienbat, aztertzen ari garen gakoari hurbiltzen uzten gaituena, Udalean dauden alderdi politiko guztien ordezkariekin banaka sakoneko *elkarriketa* baten bitartez.



Eta bestalde, *eztabaida taldea* erabili da Orioko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen inguruan dauden behar eta eskaeretara hoberen gerturatu gintzaketen teknika edo erreminta bezala. Honekin batera, etorkizunean arlo honetan lan egiteko dauden aukera, zailtasun, orientazio eta proposamen orokorretan sakontzeko bide bezala.

Eztabaida taldea pertsona kopuru zehatz bat elkartu eta beraien iritziak emateko teknika bat da, iritzi hauek nahiz maila batean izan, taldearen eraginpean egongo dira eta beraz, baldintzaturik daude. Hau horrela izanik, elkarri eragiten dioten bi errealitate maila ezberdinetan eta elkarren eraginean dabilen dinamika dela esan genezake non esandakoa ez da norbanakoak bere kabuz emango lukeen iritzi soila, ez eta, taldeak azaldu edo eta baloratzen duena bakarrik ere.

Teknika honek bakarkako elkarrizketak eskaini ez dezakeen ezagutzeko eta aztertzeo aukerak ematen ditu. Taldean “norbanakoaren erreakzio indibidualak biderkatu egiten dira eta ikuspegi ezberdinak elkartrukatzen dira”. Pertsona bakoitza taldeko gainontzeko lagunen babespean sentitzen da eta bakarka egonda erantzungo ez lituzkeen galderak erantzutera anima daiteke. Komunikazio mugak gainditzea da helburua eta gure iritziei azaleratzeko aukera ematea.

“Taldea-ren kontzeptua kasu honetan, interes, balio, egoera sozial edo esperientzia berdina izatean parte hartzen duen pertsona multzoaren sinonimo bezala ulertzen da eta beraien artean harremanetan jarri ondoren aztertuak dira”. Taldeak kasu honetan “zirikatzaile handi” bat bezala jotzen du.

Orokorrean, pertsonak gure buruaren behaketa eta azterketarako gaitasun gutxi azaldu ohi dugu eta ondorioz, ez zaigu erraza egiten elkarrizketaria sustatutako hausnarketen ondorioak diren ideiak argi azaltzea. Taldearen egitekoa, hausnarketa lanketa hori sustatzea eta erraztea da, ideian elkartrukea ahalbideratuz. Bestalde, ideia berriak, ikuspegiak, irtenbide aukera ezberdinak, e.a. sortu eta jasotzeko teknika bikaina kontsideratu da. Hori izan da bigarren fasean teknika hau erabiltzeko arrazoia, elkarrizketa sakonetan jasotako informazioa osatzeko modu eraginkorra bezala.

IV. ERREALITATE AZTERKETA LABURRA


1. KOKAPENA



Euskal Kostaldeko herri arrantzale txiki bat da Orio, 9,81 km²-ko hedadura du, eta Donostiarekin egiten du muga. Bost mila biztanle inguru ditu, eta ingurune zoragarria du naturaren ikuspegitik begiratuta. Oria ibaiak itsasoarekin bat egiten duen tokian dago, mendi berde ederren magalean, eta horregatik esaten da urdina eta berdea dela Orio.

Orio, Urola Kosta eskualdean dago, Gipuzkoako hirugarren eskualde jendetsuena 72.195 biztanlekin. Oriok eskualdeko %7,1ko biztanleria dauka, 5.149 biztanleekin (hauetako 2.533 emakumeak dira eta 2.610 gizonak) Eustat-eko 2010eko datuen arabera.

2. POPULAZIOA



Iturria: Eustat

1981	1986	1991	1996	2001	2006	2010
4.359	4.290	4.258	4.266	4.421	4.774	5.143

Azkeneko 20 urteetan, Orioko herrian piskanako populazioa handiagotu egin da, 1981an 4.359 biztanle egotetik 2001ean 4.421 egotera. Hala ere, azkeneko urteetan, populazio igoera garrantzitsu bat egon da, 2010ean 5.143 biztanle kopurura iritsita eta beraz, azkeneko hamarkadan, Eustaten datuen arabera, %19,91 areagotu da biztanleria.

2010	Orio	Eskualdea	Gipuzkoa	EAE
Haur indizea. 0-14 uste arteko biztanleak (%)	16,79	16,26	14,31	13,47
Zahartze-indizea. 65 urtetik gorako biztanleak (%)	15,67	16,91	19,42	19,53
Gainzahartze-indizea. 75 urtetik gorako biztanleak(%)	7,53	8,70	10,03	10,20

Iturria: UDALMAP. Demografia (2011)

Horrela, Udalmap-en datuen arabera, 0-14 urte bitarteko Orioko eta eskualdeko biztanleriak Gipuzkoakoa baino bi puntu gehiago dauzka, eta EAE-ko indizearekin konparatuz, hiru puntuetako diferentzia dauka. 65 urtetik gorako biztanleriak datu hauen arteko diferentzia nabarmenagoa dauka, behetik puntu bateko diferentzia dauka eskualdeko datuekin eta lauokoa EAEko datuekin konparatuta. 75 urtetik gorakoak eskualdekoarekin konparatuz behetik puntu bateko diferentzia dauka eta EAEkoarekin konparatuz hiru puntukoa.



3. HEZKUNTZA

ESKOLATZE MAILA									
2010		>=10 urteko biztanleria	Alfabetatugabeak	Ikasketarik gabeak	Lehen mailakoak	Lanbide-heziketakoak	Bigarren mailakoak	Erdi-/goi-mailakoak	Goi-mailakoak
ORIO	Znb.	3.925	13	45	1.725	690	777	270	405
	%	100	0,33%	1,14%	43,95%	17,58%	19,80%	6,88%	10,32%
ESKUALDEA	%	100	0,52%	2,87%	43,17%	16,11%	17,77%	7,81%	11,73%
GIPUZKOA	%	100	0,64%	3,20%	39,51%	16,99%	18,39%	8,21%	13,05%
EAE	%	100	0,62%	3,29%	39,42%	15,69%	18,84%	8,30%	13,84%

Iturria: EUSTAT. Ikasketa - maila.

Orion, alfabetatugabeko biztanleri ehunekoak eskualdean, Gipuzkoa eta EAEko ehunekoak baino txikiagoa da. Eta diferentzi handiagoa dago ikasketarik gabekoen indizearekin konparatuz. Hau da, bat eta bi puntuko ezberdintasuna dauka Oriok besteekin konparatuta.

Lehen mailako indizeak begiratuta, Orio eta eskualdearen ehunekoak antzekoak dira, aldiz, Gipuzkoa eta EAEekin konparatuta lau puntuz gainetik daude. Eta taulan dagoen desberdintasunik handiena dela esan dezakegu.

Lanbide heziketako irizpidea begiratuta, Orio EAEtik bi puntu goratik dago. Aldiz, Gipuzkoa eta eskualdeak puntu bat gora daude.

Bigarren mailako ikasketetan Oriok datu hobeagoak ditu, bi puntuko diferentzia hartzen du eskualdearekin eta bana puntu Gipuzkoa eta EAEekin.

Erdi/goi mailako datuak aztertuz, Oriok datu bajuenak ditu, eta eskualdearekin daukan diferentzia ez bada hain handia ere, puntu batekoa, EAE eta Gipuzkoarekin bi puntuko diferentzia dauka.

Eta bukatzeko, goi mailako ikasketetan erreparatu behar da, hauetan, Oriok ere atzetik dago, EAE eta Gipuzkoarekin hiru puntutara eta eskualdearekin puntu bakarreko diferentzia dauka.


Guzti honek agerian uzten du oriotarren oinarritzko ikasketa maila altuagoa dela eta



analfabetismo maila gutxiago duela gainontzeko eremuekin konparatu ezker. Aldiz, erdi/goi et agoi mailako indizetan, Oriok gainontzeko eremuak baina maila gutxiago daukala aipatu behar da.

EUSKARA MAILA											
2006		>=2urteko biztanleria	Euskaldunak				Ia euskaldunak				Erdaldunak
			Guztira	Alfabetatuak	Erdi-alfabetatuak	Alfabetatu gabeak	Guztira	Alfabetatuak	Alfabetatu gabeak	Hartzaileak	Guztira
ORIO	Znb.	4.596	3.559	2.726	750	83	655	338	211	106	382
	%	100	77,43%	59,31%	16,32%	1,80%	14,25%	7,35%	4,59%	2,31%	8,31%
ESKUALDEA	%	100	77,02%	60,62%	1,46%	1,78%	13,27%	6,06%	4,22%	2,98%	9,70%
GIPUZKOA	%	100	52,94%	43,99%	7,83%	1,11%	20,49%	11,41%	4,77%	4,31%	26,57%
EAE	%	100	37,38%	31,00%	5,49%	0,89%	22,14%	13,86%	3,95%	4,31%	40,46%

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuak



Gutxi gorabehera Orioko bi urte baino gehiago dituzten biztanleen ia hamarretik zortzik Euskara daki. Datu hau, EAEko datuaren 40,05 puntu gainera dago eta Gipuzkoatik 24,49ra eta eskualdearekin konparatuta ia ez dago diferentziarik.

Orioko %8,31a erdalduna da, Eskualdean datu hau antzekoa delarik (%9,70) eta EAEko datuei erreparatuta, hau %40,46ra iristen da.



4. JARDUERA

	JARDUERA TASA ³ 2006			OKUPAZIO TASA 2010		
	=> 16 (%)	Emakumezkoak => 16 (%)	Gizonezkoak => 16 (%)	16 – 64 urte artekoak (%)	16 – 64 urte arteko Emakumezkoak (%)	16 – 64 urte arteko Gizonezkoak (%)
ORIO	49,58%	45,56%	53,49%	69,05%	61,30%	76,17%
ESKUALDEA	48,10%	42,34%	53,80%	66,54%	55,87%	76,53%
GIPUZKOA	47,94%	42,62%	53,46%	65,90%	57,10%	74,43%
EAE	47,74%	42,23%	53,52%	64,99%	56,00%	73,82%

Iturria: UDALMAP. Lan merkatua.

Orioko biztanleria aktiboa Eskualdea, Gipuzkoa eta EAErekin konparatuta, indize altuagoa da, bi puntuko diferentzia duen bitartean.

Okupazio tasari dagokiona, EAEa baino dezente gorago dagoela esan dezakegu eta hiru puntu eta lau puntura Eskualde eta Gipuzkoatik hurrenez hurren.

Aipagarria da jarduera tasa beste hiru eremuetan oso antzekoa dela, hala ere, Orioko emakumeen tasak beste eremuek baino hiru puntu gorago kokatzen den bitartean, gizonezkoena, proportzio berean, behetik dagoela.

Bestalde, okupazio tasari dagokionean, Orioko okupazio tasa beste eremuetan baino handiagoa da. Azkenik, emakumeen eta gizonen, okupazio tasaren arteko ezberdintasuna ia 15 puntutakoa dela azaldu daiteke. Beste eremuetan baino diferentzia txikiagoa dela azpimarra daiteke.

³ **Jarduera tasa:** lan egiteko garaian dauden pertsonak, lanean edo lan bila daudenak.



5. FAMILIA ERRENTA

ERRENTA PERTSONALA GUZTIRA 2009 (€)	
ORIO	19.420,00
ESKUALDEA	20.401,00
GIPUZKOA	20.270,00
EAE	19.631,00

Iturria: UDALMAP. Biztanleriaren baliabide ekonomikoak

Errenta pertsonalaren inguruan, Orioko batezbesteko datuak erreferentziazko eskualdea eta lurralde historikoarekin konparatuta pixkat bajuagoa da eta EAEko batezbesteko datuem antzekoak direla esan dezakegu.

6. UDALERRIKO BESTE EZAUGARRIAK

7.1. AURREKONTUAK

2012rako Udal aurrekontua 9.226.049,00 €koa izan da.

7.2. HAUTESKUNDEAK

2011ko udal hauteskundeetan EAJ-PNV agertu da lehen indar bezala, nahiz eta Bildu eta Orain arteko akordioarekin Gobernua bi partidu hauen eskuetan egon.

Hurrengo grafikoan ikus daiteke boto kopurua eta hauen ehuneko balioa.

Udal-hauteskundeak, 2011ko maiatzak 22			
ALDERDIAK	BOTOAK	%	ZINEGOTZIAK
EAJ-PNV	1.268	43,25%	6
BILDU	1.038	35,40%	5
ORAIN	395	13,47%	2
PSE-EE	113	3,85%	
PP	38	1,30%	
ARALAR	37	1,26%	



Azkenik, gaur egungo udalbatza horrela osaturik dago:

ORIOKO UDALAREN OSAKETA	
Beñat Solaberrieta Albizu	BILDU (Alkatea)
Jon Agirresarobe Lopetegi	BILDU
Ekiñe Saizar Larrañaga	BILDU
Juan Vicente Lasa Karrikaburu	BILDU
Amaia Dorronsoro Portularrume	BILDU
Jon Redondo Lertxundi	EAJ/PNV
Noemi Ostolaza Arkauz	EAJ/PNV
Angel del Hoyo Bravo	EAJ/PNV
Lourdes Salsamendi Goñi	EAJ/PNV
Eugenio Cortado Iturain	EAJ/PNV
Elena Etxeberria Sedano	EAJ/PNV
Miriam Uranga Egurza	ORAIN
Jose Angel Iparragirre Alberdi	ORAIN

7. BALIABIDEAK

7.1. ELKARTEGINTZA

Ondorengo taulan, Udaleko teknikariak helarazitako datuei esker egindako elkarteen zerrenda aurkezten da. Orioko elkartegintzak, honako antolaketa dauka:

ELKARTEAK	
1	GAZTELEKUA
2	TXURRUMUSKI TALDEA
3	HERRIO NATUR TALDEA
4	GAZTE ASANBLADA
5	ZERO ZABOR TALDEA
6	SENDOTZA TALDEA
7	ARRANTZALE KOFRADIA
8	ZAHARREN BABESLEKUA
10	ARKUPE ELKARTEA
11	TOKI ALAI ELKARTEA
12	BALEA ELKARTEA
13	ALDAPA ELKARTEA
14	ANARRI ELKARTEA



15	SAN JUAN ELIZPE ELKARTEA
16	ARKAIZPE ELKARTEA
17	GURE ETXEA ELKARTEA
18	ODOL-EMAILEEN ELKARTEA
19	CARITAS
20	SOFBOL TALDEA.
21	ARETO FUTBOLA
22	MUSKUILU HARRI. LUIS AZKUE
23	ARRAUN ELKARTEA
24	PILOTA ELKARTEA
25	FUTBOL TALDEA
26	TALAI MENDI ELKARTEA
27	SURF TALDEA
28	ALDAPA TALDE ZIKLOTURISTA
29	TXISTULARI TALDEA
30	SAN MARTINGO FESTA BATZORDEA
31	ERRIKOTXIA BERTSOZALE ELKARTEA
32	FARFARA ELKARTEA
33	MANDALARA TALDEA
34	KARKARA TALDEA
35	OSTARGI TALDEA
36	HARRIBIL DANTZA TALDEA
37	SALATXO ABESBATZA
38	ETXERAT

7.2. IKASTETXEAK ETA UDAL ZERBITZUAK

IKASTETXEAK	
1	MARIA MAESTRA HAURRESKOLA
2	ORIOKO HERRI IKASTOLA
3	ZARAGUETA ESKOLA
4	DANBOLIN MUSIKA ESKOLA
5	ESPERIENTZIA ESKOLA
6	SAN NIKOLAS HAURTZAINDEGIA
7	AMETSA GAZTELEKUA



V. ELKARRIZKETA SAKONEN INFORMEA

ELKARRIZKETATUTAKO ORIOKO ALDERDI POLITIKOAK (Elkarrizketa egindako ordenean)	
BILDU	Beñat Solaberrieta (2012-10-02)
ORAIN	Jexux Mari Arriaran (2012-10-19)
EAJ – PNV	Noemi (2012-10-19)
PSE-EE	Jesus Rodriguez (2012-12-17)

Guztira lau pertsona aukeratu dira, herri-administrazioa zereginetik Orioko udalerrian Bizikidetza eta Giza Eskubideen egoeraren inguruan erakunde-ikuspuntua azaltzeko. Hain zuzen ere, 2011-2015 udalbatzako hiru alderdi politikoen ordezkariak elkarrizketa egitea proposatu zaie. Laugarren elkarrizketa, PSOEko ordezkariari egin zaio. Alderdi honek legealdi honetan ordezkariarik ez izan arren Orioko udalerrian izan duen ibilbidea eta azkeneko hauteskundetan ordezkari bat ateratzeko oso gertu geratu zelako, elkarrizketa egitea hobestu da Udaletik.

Elkarrizketetako gidoiak, erakunde-ordezkaritza duten alderdi politikoen ikuspuntua jaso nahi zuen gai honen inguruan lan eredu bat zehazteko: udalerriaren Bizikidetza, identifikatutako gatazka edo arazo nagusiak, eta proposamenak eta ekarpenak.

Informe honetan jasotzen dena aipatutako elkarrizketen azterketa da eta arlo ezberdinetan egituratu da:

- Orioko Bizikidetza
- Udal mailako gatazka nagusiak
- Egindako lanaren balorazioa
- Bizikidetza eta Giza Eskubideen Udal Plana

Jarraian burututako elkarrizketetatik jasotako ondorio nagusiak aurkeztuko dira. Erabilitako hizkuntza, elkarrizketan bertan erabilitakoa izango da, nahiz eta ondorioak ikerketaren idazketan erabilitako hizkuntzarekin bat datozen. Ondorioak definitzen dituzten arloak elkarrizketetan erabilitako galderari buruzkoak dira (eranskina ikusi).



ORIOKO BIZIKIDETZA

Egindako elkarrizketetan jaso diren ideien artean, behin eta berriz errepikatuta agertu dena zera izan da: perfil ezberdinetako pertsonen artean harreman positiboak izatea eta eredu horretan oinarrituz bizitzeko aukera izatea. Bizikidetza hori ahalik eta hobeagoa izan dadila, pertsonen heziketan inguruak eragiten duen neurrian, garrantzitsua da eragile guztiek harremanetarako darabilten irizpideak errespetutik abiatzea; hau da, pauta edo bizikidetzarako konsigna horiek bete eta mantentzea. Eta gainera, nahiz egoera guztietan ez berdina pentsatu, batzen dien elementuetan sakontzea eta poliki poliki pausuak eman daitezkeela uste dute.

Bestalde, Giza Eskubide kontzeptuarekin lotzen diren ideiak ere ildo beretik doaz. Giza Eskubideak oinarria direla, bermatu behar direnak eta egunerokotasunean eragiten dutenak.

Guzti honetan kontziente izanik, Orioko Bizikidetzari dagokionean, ikuspegi baikorra dagoela esan daiteke. Herri bat da, pertsonen arteko harremanak eta tratua lasai da, eta batzuen aburuz duela urte batzuk baino lasaiagoa, normalizatuagoa ere bada. Baina, egoera honen aurrean beldur gehien suertatzen duena krisi ekonomikoa da. Gaur egun, herri lasaia izatetik gizarteak landu beharreko balioak ez ote diren galduko beldur dira. Orain artean ageri ez ziren bazterketa eta diskriminazio ezberdinak ageriagoan gera daitezkeela pentsatzen dute.

“...Zeintzuk dira gizarteak landu behar dituen balioak? Hortik hasi behar gara hori aztertzen, gizarte bezala gure erantzukizuna da guztiok ondo egon behar garela, aurrera jarraitzeko...”

Bizikidetza lasai honen barruan, badaude zenbait gatazka aspalditik barneratuta daudenak eta aurrerantzean landuko direnak. Hauek, Orioko bizikidetzan eragina handia daukatela esan dezakegu. Eta politikariak jabetzen dira bere papera garrantzitsua dela bizikidetza era batekoa edo bestelakoa izan dadin. Bereziki alderdikeriak eragiten baitu herritarren bizikidetzan.

“Gaur egun, gauza puntualak daude enkistatuta,... Eta eragin handia dauka kalean nabaritu egiten dena.”



Herriko elkarbizitzan eragiten duen eragile bat merkatarien elkarte da. Badirudi aurreko legealditik datorrela bere jokamolde hau. Izan ere, Orioko merkataritza bizirik dago eta herritarrekin kontaktu zuzena dauka. Hortaz, herritarrengan eragina izan dezake zuzenean eta bestalde prentsa erabili ohi du presioa egiteko. Hori dela eta azken aldira, zuzeneko harremana sustatzen ari da udaletxea, egon daitezkeen proposamen eta gatazkak zuzenean lantzeari begira.

“... beraiei ez dagokien gaietan a sako joaten dira eta prentsa erailtzen dute... eta horrek eragina dauka, merkatu herriko aktibitate nagusietakoa da ...”

UDAL MAILAKO GATAZKA NAGUSIAK

Elkarrizketatutako ordezkari politikari guztien aburuz, Orioko errealitatean badira bi gatazka nagusi eta kontutan izan beharrekoak. Alde batetik alderdi politikoen artekoa eta bestalde, hezkuntza arloan, Herri Eskola eta Ikastolan artean dagoena.

Lehen gatazka nagusiaren inguruan hitz egiterakoan, bi atal ezberdindu dira. Alderdien artean dagoen zatiketa, hau da, mesfidatik lan egiten dela, konfiantzarik ez dagoela behin eta berriz aipatzen da. Eta zatiketa hau harreman pertsonaletan islatzen dela ondorioztatzen da. Alderdien artean dagoena, herrian eragina daukala argi eta garbi ikusten da. Herria txikia da eta herritarrek arlo ezberdinetan bat egiten dutenez, alderdi nagusiak prentsaren bidez, edota Udalean bertan izaten dituzten ezikusiak eta gatazkak, herritarrek errepikatzen dituzte.

“...elkarren arteko elkarrizketa bideratzea oso zaila da, eta gainera, prentsa bidezko konfliktua bihurtzen ari da...Eta eragin handia dauka kalean nabaritu egiten dena.”

Eta bigarren atala, Euskal Herriko konfliktu politikoaren ingurukoa. Batek baino gehiagok, herriko zinegotzi bat hil zutenaren hamargarren urteurrenaren inguruan sortutako gatazka baten inguruan hitz egin dute. Zailtasunak nabarmendu dira gatazka politikoaren inguruan hitz egiterakoan. Batzuen ustez, Udal erabakiak hartzerakoan lasai hitz egiteko askatasun falta nabaritzen da eta beste batzuk aldiz, gatazkaren lanketa era positiboan bizi dutenaren ikuspuntua daukate. Adostasun minimoetara iristeko agian ez dago berezko zailtasunik, oinarritzko dokumentua idazteko gai direla esan arren, hutsunei dagokionean, ohikoak dira



elkarri egindako aurpegiatzeak. Alderdikerietan sarturik malguntasun falta nabaria gertatzen dela azaltzen dute batzuk eta besteek. Hala ere egungo egoerak ahalbidetzen duela uste dute, politikarien artean adostasun zabalagoak lortzen eta herritarrekin landu beharreko gatazka dela baloratu eta argi aipatzen da.

“Herri txikitan batez ere mina asko egin da, ezagutzen zera eta errekonozimendua denok egin behar dugu, zeren denok minagatik hitz egitean mina eman dugu eta zurrumurruak eta komentarioak...asko laguntzen dute horretan.”

“...eta beti entzun behar duzu *ez duzu nahikoa esan...* baino esan dudan horrekin ados baldin bazaude edo ondo ikusten baduzu, esan!”

“Son elementos de fricción que están en la sociedad que no puede solucionar el Ayuntamiento sino la gente que compone esa sociedad.”

Alderdikeriak beraz, eragin zuzena dauka biztanleengan. Kargu politiko batzuk bere haragitan bizi izan omen dituzte irainak; hau da kargua pertsonaren aurretik jartzeko jarrera izandu da. Etiketak jartzeko joera egon badago eta horrek mesede gutxi egiten dio elkarbizitzari.

“... egunerokotasunean ematen direnak, lanketa bat egin nahi duzulako eta oztopo tontoak ematen direlako, bakarrik zaudelako etiketara eta ez pertsonak esaten dutenera”.

Orioko arduradun politikoei gehien arduratzen dien beste gai garrantzitsuena hezkuntza arloaren inguruko gatazka da. Hau aspaldiko urtetatik dator eta herri guztiari eragiten dio. Ikasle, irakasle eta gurasoak tartean daudenez, herriak bizi eta sentitzen duen gatazkaren aurrean gaude. Herrian mobilizazio handien aitzakia izan da, kanpaina erraldoi bat bizi zen Orion Ikastola eta Herri Eskolaren arteko gatazka dela eta. Gatazka oso pertsonalizatuta dagoela uste da, eta zenbait kasutan Udala erdigunean jarri dela baloratzen da. Hau da, Udala erabilita izan da bi ikastetxeen arteko gatazkarengatik. Batzuen ustez, hezkuntza arloan dagoen gatazka honen iturburua diru-kontuak dira eta gatazka pil pilean egon denean ere, diruari buruz hitzegiten zen hezkuntza ereduari buruz beharrean. Hala ere, badirudi, hezkuntzaren inguruan



hitz egiterakoan akordio gehiago egon daitezkeelako (nahiz esperientzak erakusten duen, egun zaila dela proiektu amankomunak bideratzea), baina bestalde, baieztatu daiteke, diru-kontuen inguruan hitz egiterakoan akordiorik ez dagoela.

Aipatutako gatazkak orokorrak diren arren, bestelako gatazka puntual batzuk ere mahai gainean jarri dira. Hala nola, kirol arlokoa, etorritako pertsonen ingurukoa eta hizkuntzarekin lotura duen gatazka.

Kirol arloan dagoen gatazkaren inguruan hitz egiterakoan, badagoela ikusten bada ere, herrian ez da gatazka garrantzitsua bezala ikusten eta ez da horrenbeste sentitzen baina elkarriketatu ezberdinek aipatzen duten gatazka dela azpimarratzea ere garrantzitsua da. Aldiz, kirol arloan bertan dauden talde ezberdinen artean puri-purian bizi da. Orioko herrian arraun elkarteak daukan pisua eta honi bideratzen zaion diru kantitatea ez da batere ondo bizi gainontzeko kirol elkarteengatik. Ekonomikoki diferentzia handia dagoela aipatzen da, besteen kalerako.

“...kirolean ere konflikto inportantea izan dela, berriz ere, Orioko Udala erdian jarri, eta zenbat ematen zaion arraunari, zein garrantzia ematen zaion arraunari eta ze gutxi beste kirolei (futbola, saskibaloia, eskubaloia, softball,...). Ekonomikoki oso diferentzi handia dago bata eta besteei ematen zaionaren artean eta errezelo handiarekin daude.”

“...kirol arloan hori bai dago latente... Orion arrauna jainkotu egin da eta horrek arrisku bat dakar eta medio ekonomiko asko behar dituzte eta medio ekonomiko asko destinatzen dira arraunera. Baina badaude beste kirol talde batzuk ere galdetzen dutenak “eta guri?”...”

Etorritako pertsonen inguruan hitz egiterakoan, orain dela urte batzuk nabarmena izan zen gatazka bat aipatu da. Orion mezkita bat egin behar zenean zenbait protesta eta iskanbila sortu ziren. Gaur egun aldiz, gatazka hura baretu da eta guztiok elkarren artean bizi dira gertatutakoaz gogoratu gabe. Beraz, bi erlijioen artean ez zen talka nabarmenik izan nahiz herritar batzuk, ez zuten begi onez ikusi eta egun harreman egokia dago kristau eliza eta mezkitaaren artean.

“Bere garaian mezkitaekin ere arazoa egon zen, jarri edo ez jarri...baina baretu da, onartuta dagoen toki batean jarrita dago, orain dela 6 urte, eta asentatuta dago, eta bizikidetza on bat



dago. Bi erlijioen arteko talkarik ez da inoiz egon eta ondo eramaten dira, eliza kristaua eta mezkita. Bizilagunekin izan zen konfliktua baina bi erlijioen arteko talkarik ez da inoiz egon.”

Baina gai honen inguruan ere, integrazio erreala ematen ez dela aipatzen da. Etorritakoak beraien zirkuluak egiten dituztela aipatzen da, bi aldeak ez dituztelako aurrera pausurik ematen. Hortaz, elkarrekin bizi arren, bizikidetza errealik ematen ez dela baieztatu daiteke.

Aurreko puntua alde batera utzi gabe, hizkuntza komunitateekin daukan lotura azpimarratzen da. Etorritako zenbait pertsona euskara ikasten duen bezala, badago beste kolektibo bat, euskara ikastea ez duena bere nahien artean. Honek, Orio bezalako herri euskaldun batean (UEMAko parte dela jakinda), mugak sortzen ditu elkarrizketatu batzuen iritziz. Baina badago iritzi horrekin ados ez dagoenik ere. Hau da, euskara bazterketarako erabiltzen dela pentatzen duena..

“Hizkuntzarekin arazorik ez, hau euskararen arnas gunea da, kanpotar berriak ikasi behar izan dute euskaraz (ostalaritza edo arrantzan). Badago beste kolektibo bat urteak daramazkiela eta ez dutenak ikasi.”

“En Orio se utiliza el euskera como arma; incluso como arma para los que saben euskera, para las personas no alfabetizadas en euskera. El problema no es que esté en euskera o en castellano sino en la vulneración de derechos y que la ciudadanía no pueda entender, falta de respeto que realizado desde las instituciones es una vulneración de los DDHH.”

EGINDAKO LANAREN BALORAZIOA

Elkarrizketatuei zaila egiten zaie zehazki azkeneko urteetan egindakoaren balorazioa egitea. Gehienak arlo politikoan berriak dira eta hortaz, orain arte ezagututakoa azpimarratzen da eta aurretik burututakoaren inguruko xehetasunak ere aipatu dira.

Orain arte egindako lanaren balorazioa egiterakoan, nagusiki bi gai zehatzen aurrean emandako pausuak aipatzen dira. Bi gai hauek, aurreko atalean gehien arduratzen zuten gatazkekin bat egiten dute.

Alde batetik, hezkuntza arloan, bi ikastetxeen arteko gatazka eraldatzeko emandako pausuak



aipatu dira. Bitartekaritza prozesu bat egiteko saiakera egon zen nahiz eta emaitzarik ez izan. Honen inguruan ere elkarrekin burutzeko ekintza ezberdinak diseinatu direnaren aipamena egiten da, interakzioa eta elkarlana sustatu nahian. Beste aipamen bat egiten da gatazka honen inguruan, hezkuntza jardueretan ibiltzen ziren Orioko eragile ezberdinak parte hartu zuten jardunaldiak, azkeneko honek oso balorazio positiboa izan du. Bertan, hezkuntzaren inguruan hitz egiterik baino ez zegoenez, parte hartutako eragileak komunean zituzten ildoak lantzeko momentua izan zutelako.

Bestalde, Euskal Herriko gatazkaren inguruan, mozio ezberdinak plenoetara eramane arren hortik aurrera gehiegirik egin ez denaren sentsazioa dago; Juan Priede, Orioko zinegotzia, hil zutenaren hamar garren urteurrenean egindako omenaldia, pleno berezia eta plaka jartzearena aipatu bada ere. Pausu hau ematerako orduan familiari deitu zitzaion egin beharrekoak beraiek ere jakin zezaten eta badirudi, begi onez hartu zutela. Kontzienteki landutako ekimena bezala azpimarratzen da, lehen pausu gisa agian, nahiz eta honen emaitza guztiek ez duten berdin baloratzen.

“Euskal Herriko konfliktoaren inguruan ez da ezer egin...Landu da, mozioak eramaten plenoetara eta zein haserre gauden irudikatzeko baina hortik aurrera ez da ezer egin.”

“Biktimei omenaldia egin zitzaion, hori zen bizikidetzan falta zitzaigun... bai, kontzienteki egin genuen, baina ez dakit bizikidetzarako lagundu duen edo min gehiago egin den...edo zegoen mina zer edo zer gutxitu den...edo ez dakigu.”

“ Presoen eskubideak bermatzeko pare bat edo hiru mozio atera dira.

Orain hamar urte, ETAk hil egin zuen PSOEko zinegotzi bat eta orain del urte bat egon zen, bere urteurrenean mozio bat, plaka bat jarri ez jarri, eta onartu zen jartzea eta orain ari gara non jarri. Horrelakoak bai, agertu izan dira eta onartzen dira Udal batzarrean.”

Gainontzeko gai edo gatazka lantzeko aholku mahai ezberdinak osatu direnaren aipamena egiten da. Hauen artean, ingurugirokoa, kiroletakoa, parte hartzearen inguruko mahai ezberdinak, herritarrei arduratzen dieten gaiak lantzeko aukera bezala. Euskeraren aholku



mahaiak berean jarraitzen du aurreko legeladitik. Eta etorkinekin egin beharreko pausuen protokolo edo jarraibiderik, gaur egun oraindik ez dago zehazturik.

Berdintasun inguruko Plan bat ere egin zen, berriro berreskuratu eta landu nahi dena. Gai honen inguruko mozio ezberdinak ere aipatu dira, martxoaren 8aren inguruan egin ohi dena eta Amaia Azkue oriotarraren aldeko epaiketa izan zenean, plazan egindako hainbat agerraldiekin lotuta.

“Amaia Azkueren inguruan ere mozioa izan zen, epaiketa izan zenean, egin ziren hainbat agerraldi hemen plazan, jendea mugitu zen eta oso gertua izan zen familiarekin.”

“Ha habido muchas mociones,... la del 8 de marzo, por la igualdad entre hombres y mujeres.”

Bukatzeko, elkarrizketatuen artean agertutako bizikidetzan lagundu duen ekintza bezala, Esperientzia Eskolak belaunaldi ezberdinen artean egindako proiektua aipatzen da. Honekin, heldu zein gazte ideiak, proposamena, jolasak, afizioak,... elkarbanatu dituzte eta sortutako harremanak oso positiboak izan direla aipatzen da.

“Bizikidetza inguruan, lanketa bat egin da, Esperientzi eskolak lanketa berezi bat egin du, lanketa intergenerazionala egiteko eta egiten dituzte tailer berezi batzuk DBHko ikasleekin eta jubilatuek erakusten diete plantxan, josten,...eta besteak erakusten die mobila erabiltzen, interneta,...”

BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN UDAL PLANA

Elkarrizketetatik atera daiteke, Bizikidetza eta Giza Eskubideen lanketa, Plan edo ildo batzuen zehaztapena onuragarria izan daitekeela. Hau da, elkarte bat edo batzuen laguntzarekin Udalak gai hauek lantzeko bideak eraiki ahal izango dituela. Interesgarria ikusten da bizikidetza arloan bide bat adostea, eragile ezberdinen ikuspegiak barneratuta dauzkan plangintza bat sustatzea eta gutxiengo adostasun batetik eraikitzen hastea.

“Plan bat aurrera eramateko aukerak guztiak ikusten ditut eta oztopoak batere ez. Eta gainera



momentu onean gaude, legealdiaren erdian, martxa hartua diogu Udalari, aholku batzordeak eratuta eta martxan daude,...ez dut inongo oztoporik ikusten.”

“Orio podría hacer un Plan de Convivencia... fundamentalmente creo que las ONGs tenéis más razones y posibilidades...Pero realizarla en el Ayuntamiento no tiene sentido. Debe ser una acción social, no institucional, a todos los niveles de toma de conciencia. Las ONGs que os movéis en este ámbito realizáis algo positivo y sois los que tenéis que realizar la acción y no las instituciones. Otra cosa es que desde las instituciones se realicen labores de fomento.”

Izenburu honen azpian, atal honetan agertzen dena zera da: aurrerantzean Orioko Udaletik Bizikidetza eta Giza Eskubideen oinarriak lantzeko ildo edota modu egokiak.

Hortaz, inportante bezala baloratzen da diagnostikoa bera bideratu den moduan, Orioko herrian bizi diren gatazka guztiak zerrendatzea. Hauei aurre egiteko lehentasunak jarri eta eguneroko gatazkei aurre egin edo eraldatzeko zerbitzu bat egotea aipatu da.

“Nik Orion ikusten dut, 5.300 biztanle inguru, pertsonak gehitzen dira, kopuru handiagoa da eta gatazkak sortzeko aukera handiagoa ere. Horregatik beti egon beharko luke halako zerbitzu bat gatazkak eraldatzeko edo ekiditeko, herria Bakera bideratzeko.”

Herriko Bizikidetza eta Giza Eskubideen alde lan egiteko eta aurretik aipatzen den “herria Bakera bideratzeko” oso inportantea ikusten da Giza Eskubideen inguruan dauden ikuspegi bateratuak adostasunak eta oinarri horiek adostea eta lantzea. Elkarrekin hausnarketa bideratzea eta konponketa lortzeko apustua egitea. Honekin lotuta, Euskal Herriko gatazka politikoaren ondorioz eragindako minak konpontzeko lanketa eta bidea erraztea, urtetan sortutako minak ulertu eta pausuak emateko garaia dela ikusten delako.

“Denok sortu dugu min bat eta orain da garaia konpontzeko, pausuak emateko, baina hasiz onartuz ze kalte egin dugun edo ze mina egin dugun, aurrena hori onartu behar dugu eta hortik aurrera erreparatzeko pausuak antolatzen edo ematen edo...batzuetan nahi duzu eman eta ezin duzu edo ez dizute uzten edo... Orain, garai berri batean gaude eta alderdi politiko guztiek hori esaten dugu eta biztanleek ere horrela ikusten dute eta esaten dute. Hau horrela izanda,



adostasun hori baldin badaukagu, goazen hortik aurrera pausuak ematera. Seguru bide ezberdinak hartuko ditugula eta igual ez gara inoiz topatuko eta beste batzuk bidean topatuko dira.”

Ildo guzti hauen inguruan hitz egiterakoan, herriaren inplikazioa ezinbestekoa dela behin eta berriz aipatzen da. Herriko eragileek paper inportante bat daukate eta beraiekin lan egitea ezinbestekoa dela baloratzen da. Horregatik, umetik hasita, hauen heziketaren inguruan eragin eta proiektuak bideratu behar direla aipatzen da. Hauek, eguneroko gatazkei aurre egiteko baliabideak behar dituzte, herritarrak diren heinean bizikidetzaren alde lan egin dezaten. Herritar bezala hitz egitean hezkuntza ez da bakarrik umeei zuzendu beharreko zerbait, helduak ere ikasteko daukagula aipatzen da. Horretarako, herri osoari bideratutako ekimenak burutzea positibo bezala baloratzen da.

“Oso inportantea iruditzen zait baita ere, umeei arlo honetan hezte. Bake Hezkuntzan umeak hezte... Hurrengo belaunaldiei gorroto hori ez transmititzea inportantea da, arlo guztietan”.

“Ekimen puntualak eta herri osoarentzat direnak seguruenik egin ahal izango ditugula baina oinarriak adosteko aurretik esandakoa (...Alderdiak alde batera utzita eta Orioko arduradunak garen momentutik lan egitea...) gainditzea ezinbestekoa da. “

Oinarrizko lanketak egiteko, gaiaren inguruan hausnartu eta bideak eraikitzeo ondo baloratu dira momentuan arlo ezberdinak lantzeko martxan dauden aholku batzordeak. Hauetan, batzuk urte gehiagoko esperientziarekin eta beste batzuk hasi berriak direnak, herriko eragileak arloaren inguruko hausnarketa, lanketa, proposamenak eta ildoak lantzen dituzte. Besteak beste, euskara, hezkuntza, kirola, ingurugiroa... Hauek baliabide inportante bezala aipatzen dira, izan ere, herritarren partaidetza sustatzea, hiritartasuna bermatzea eta herriarekiko inplikazioa/korresponentsabiltatea areagotzea lortzen baita.

“Orain, aholku batzordeak osatu dira eta osatzear daude beste batzuk (kulturakoa, kirola, ingurumena,...) eta aukera dauka edonork joateko, bertan ezagutzen duzu jendea, hitz egiteko aukera duzu, informazioa elkar trukatzeko modu bezala, esparru konkretuak lantzeko baliabide inportanteak dira”



“Parte hartzearen inguruan, hiru aholku mahai sortu ditugu (kultura, kirola eta ingurumena), euskarakoa bazegoen, eta beste bi sortzeko ditugu (ongizatea eta turismoa). Aportatu dezaken jendea badagoelako eta orain arte ez zegoelako non bota bakoitzak bere jakintasunak. Martxan daudenak oso ondo funtzionatzen dute”

Bizikidetza eta Giza Eskubideen gaiak lantzea ezinbestekoa dela ondorioztatu dezakegu. Elkarrizketatuei, udaletxe barruan gai hau zein departamendu edo arloren esku dagoen galdetzean, bi ideiei komunak agertu daitezke.

Alde batetik, gaia zeharkakoa dela baloratzen da, ezin dena departamendu zehatz batera mugatu. Hortaz, sail guztiak zerikusi zuzena daukate Bizikidetza eta Giza Eskubideak lantzerakoan eta ardura ere guztiona dela ondorioztatu dezakegu.

Eta bestalde, nahiz eta departamendu guztietan landu, burua edo koordinazio gunea non egon beharko lirateke galdetzean, alkatetza ikusten da gaiari zeharkakotasun hori eman dakiokena.

“Zeharkako lerro bezala eraman behar da eta alkatetzak ematen du zeharkakotasun hori. Alkateak eta harren inguruko departamentuak, hau txikia delako eta pertsona batean finkatzen da. Alkatetzak transmititu behar die beste batzorde guztiei, bizikidetza, bakea,... gauza guzti horiek.”

“Ardura guztiona da, ardura intimo edo pertsonala denona da.”

“Transbersala da, arlo bakoitzean egon daitezke konfliktoak eta horiek askatzea da helburua...Zerbait transbersala, ez dago arlo zehatz batean, orokorrean dagoen zerbait da eta landu behar da.”



VI. EZTABAIDA TALDEEN INFORMEA

Guztira, hiru eztabaida talde osatu dira, bakoitzean eremu edo arlo zehatz bateko ordezkariak bilduz: gizarte, hezkuntza eta udal arloa. Buruturiko saioetan bertan egindako hausnarketak jaso dira eta modu honetan antolatu dira.

Udal langileekin 2012ko urriaren 23an lehen saioa burutu zen, bertan ikerketaren aurkezpena eta kokapena egin zen. Bigarren saioa 2012ko azaroaren 13an egin zen, bata zein bestea bi orduko iraupena izan zuten. Saio hauetan ondoko taulan agertzen diren pertsonak parte hartu zuten.

PARTAIDEAK	
BULEGO TEKNIKOAK	Pilar
EUSKARA ETA HEZKUNTZA	Jabier
GIZARTE ONGIZATEA	M ^a Luisa / Xanti
KIROLA ETA GAZTERIA	Mikel
IDAZKARITZA	Ion

Bigarren eztabaida taldera Orioko ikastetxe eta Udal zerbitzuak deituta izan ziren. Hauen saioak 2012ko azaroaren 21ean eta abenduaren 5ean burutu ziren. Aurreikusitako iraupena ordu eta erdikoa zen baina saio batean zein bestean luzatu egin zen.

PARTAIDEAK	
MONJEN HAURTZAINDEGIA	M ^a Pilar - Guillermina
ZARAGUETA HERRI ESKOLA	Xubi
ORIOKO IKASTOLA	Zigor
AMETSA GAZTELEKUA	Xabi
MUSIKA ESKOLA	Elena
ESPERIENTZIA ESKOLA	Garazi
MARIA MAESTRA HAURTZAIDEGIA	Maialen



Hirugarren eztabaida taldea gizarte arlokoa izan zen, berrogei bat elkarte deituta izan zirelarik. Saioak 2012ko azaroaren 29an eta saiakera ezberdinak egin ondoren, hurrengo saioa 2013ko urtarrilaren 31ean burutu zen Orioko Kultur Etxean. Saio bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izan zuen eta 8 pertsona parte hartu zuten, horietako bost emakumeak eta hiru gizonezkoak. Bestalde, pertsona batzuen ordezkapena bi elkarte ezberdinetakoa zela esan beharra dago.

PARTAIDEAK	
SOFTBALL TALDEA	Elena
EAJ - PNV	Elena
NATUR TALDEA	Joanna
HERRI ALDIZKARIA	Ritxi
ERRIKOTXIA BERTSO ELKARTEA	Ritxi
GAZTETXEA	Egoitz
ORAIN	Jexux Mari, Iparra
SALATXO ABESBATZA	Mariaje, Marisa



■ UDAL LANGILEAK

Buruturiko lan saio bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izan du. Hiru dinamika egin dira ikuspegi orokorra jasotzekari begira: lehenengoa, Orioko ikuspegi orokorra jasotzeko balio izan digu eta ondoren, gatazkak identifikatu dira. Horretarako, partaideek, bi galdera erantzun dituzte: Udal teknikariak beren esparruaren baitan dituzten Bizikidetzeta egoera eta gatazkak eta Orion, herri mailan, teknikariaren ikuspuntutik, nabarmen ikusten dituzten gatazkak. Azkenik, azaleraturiko gatazken aurrean, proposamenak pentsatu ditugu egoera horiek hurrengo urteetan mantendu ez daitezen.

UDAL LANGILEAK: ERREALITATEAREN PINTZELADA BAT

Bakeolatik zehazturiko hamar eremuetan Bizikidetzaren egoera baloratzeko eskatu zaie. Horretarako erabilitako dinamika “semaforoarena” izan da. Dinamika honen bitartez, Udal arloko eragile ezberdinek Orio udalerriko balorazio-argazkia ateratzen dute.

AZTERKETARAKO ARLOAK

Gizarte ongizatea

Aisialdirako guneak eta jarduerak

Inplikazio soziala udalerriaren garapenean

Kultur eskaintza

Osasun zerbitzuen kalitatea

Udalaren hezkuntza apustua eta laguntza

Ingurunea eta ingurumena

Arlo sozioekonomikoa

Udal kudeaketa (Orioko Udala)

Herritarren - segurantz



Jarraian, hamar arloak aztertu ondoren agertutako ondorio nagusienak aipatuko dira. Hauek kontutan izanda Udal langileek daukaten, Orioko ikuspegi orokorra azalduko da.

AZTERKETARAKO ARLOAK	
Aisialdirako guneak eta jarduerak	- Eskaintza handia dago, ekitaldi handiak garatzeko aretoen bat faltan botatzen da. - 16 urteko gazteak ez dakite zer egin, gune multikulturalaren baten ideia landu beharko litzateke. - Biztanle kopururako eta beste herrieekin konparatuz oso ondo dago. - Musika eskola, esperientzia gela,...ikasle kopuru handia daukana eta ondoko herriak ez daukatena. - "Centro de interpretacion del Camino de Santiago", Euskal Herriko bakarra da . - Gipuzkoako udal kanpina onena, lehen mailakoa, bakarrenetarikoa Udal kanpina bezala. Udalaren kudeaketa zuzenarekin.
Kultur eskaintza	- Oso zabala da, hutsune bat, areto koxkor baten falta (zinema) eta tamaina ertainetarako ekimenetara bideratua. - Eskaintza oso potentea da, Udalak eta elkarteak eskainitakoak.
Zerbitzuen kalitatea	- Konparatzen bada lehen zegoenarekin gaur egun zerbitzu asko ematen dira eta izugarri aldatu da Orioko zerbitzuen kalitatea eta morfologia. - Herritar bezala oso zerbitzu kalitate ona dagoela esan dezakegu; aparkalekuak, komertzioa, Udalaren eskaintza,.. orokorrean oso ona da. - Biztanle kopurua kontutan izanda, oso handia da eskaintzen den zerbitzu kalitatea.
Udal hezkuntza arloa	- Sare kontzertuan DBH arte dago eta publikoan ireki gabe DBH arte ere, igual gehiegi izan daiteke hori edukitzea hain herri txikian. - Musika eskola aldiz, oso ondo dago eta inguruko beste herrietan ez dago horrelakorik.



Ingurugiroa eta ingurumena	- Kontaminazio aldetik ez dago arrastorik, ez baitago industrialdea handirik. Inpaktu handia izan zen morrua eta autopistako zubiak ere, ikus-eremuan eragina dauka...baina orokorrean oso ondo dago. - Azken bolada honetan hobeto zaintzen dira gauzak lehen ez bezala, hondartza aldean zementu gehiegi ikusten da.
Arlo sozioekonomikoa	- Oriok ez dauka industriarik, arrantza ere gutxiagotu da,...komertzioa aldiz nahiko handia da eta eskaintza zabala dago. - Arrantzak utzitako hutsunea ez da bete eta ez da jakin nola egin, oso presente dago herriko bizitzan eta arrantzaren ordeko aukerarik ez da bilatu.
Udal kudeaketa (Orioko Udala)	- Udalak hainbat ekitaldi egiten ditu eta zerbitzu onak prestatzen ditu. Orokorrean, nolabait udal dependentzia asko dago. - Udal aktiboa dela nabaritzen da, arlo ezberdinetan mugitzen da eta herriaren exigentzi mailarekin erlazionatuta ikusten da. - Udaletxeko kudeaketa oso inportantea izan da eta kudeaketa ekonomikoa ere oso ona izan da eta honek, gauza asko ahalbideratu ditu. Herritarrekin gertutasun handia dago eta erraz eskatu eta hurbiltzen dira, onerako eta txarrerako oso inportantea da. Orokorrean kudeaketa hori ona da eta biztanleek, hurbiltasuna asko eskertzen dute.
Herritarren - segurantzza	- Edozein ordutan lasai ibiltzeko aukera dago, eta umeak parkean lasai egon daitezke herriko bizimodua lasaia da eta segurtasun osokoa da. - Azken denboraldian, lapurketak egon dira eta bandalismoa handia dago, pintadak, igogailuak,...honek azkeneko urteetan igoera handia izan du , eta landu beharreko zerbait da. - Lapurtzearena ez da asko izaten, baina noizbehinka ematen da. - Errespetu falta handia dago, azkeneko urteetan handitu dena, guztien gauzekiko zibismo falta handia dago.. - Udaletxera jendea etortzen denean eskubideak argi eta garbi daudela argi geratzen da, baina aldiz, betebeharrak ez dira ikusten eta ez dira ikusi nahi. - Pertsonenganako segurtasuna ez dago arriskuan, ondasunei kalte egiten zaio.



Laburbilduz

Lehenik eta behin, Orio bezalako herri batentzat, hau da, herri txiki batentzat, bertan eskainitako zerbitzu, aukera eta eskaintzak ongi baloraturik daude orokorrean. Gainera, badirudi poliki poliki joan dela eskaintza beharretara egokitzen eta beraz, egokia da esatea, orokorrean gustura daudela herriaren baliabideekin eta bertan eskaintzen diren zerbitzuekin, bai eta kultur eta kirol eskaintzarekin ere.

Harremana adibidez, herritar eta udal teknikariekin gertukoa da, elkar ezagutzen dutelako eta horrek, hurbiltasuna dakar eskatu eta emateko orduan (onerako eta txarrerako).

Segurtasunarekiko, orokorrean lasai bizi direla azpimarratzen da eta nahiz lapurketa kasuren bat izan den, egun herri lasaia dela azpimarratzen dute.

Inguruarekiko ere, orokorrean balorazio positiboa dago ez baitago kutsadura nabarmenik eta industria kutsatzailerik. Ingurugiari dagikionean, zerbait azpimarratzekotan, garai batean egindako azpiegitura handiak egiten duten eragina aipatzen da (zubia, espigoia, hondartza inguruan egindako eraikuntza kopurua, etab.). Egitura hauen benetako beharraren inguruan egiten da aipamena. Baina une honetan, orokorrean balorazioa ona dela esan daiteke.

Orokorrean, azpimarratzekotan, Orioko teknikarien aburuz, oso herri partehartzailea eta dinamikoa da; elkarteek beren egituretan jende berria sartzea lortzen dute (eta ondoko herrietako elkarteetan oriotarrak ere topa daitezke) eta ez dira desagertzen.

Hori esanda, eta hobekuntzak egitea garrantzitsua delako, badira herrian hainbat elementu kontutan hartzekoak.

Herritarren jarreretan aldaketa nabaritzen da. Izan ere, hasiera batean herritarrek eskertu egin zituzten udaletik eskaintzen ziren zerbitzu eta baliabideak; egun ordea, herritarren artean bada eskubide gisa eskatu eta exijitzen duenik ere. Eskubideen aldarrikapena areagotu den neurrian, betebeharrak ez da hainbeste kontutan hartzen. Bide beretik, udalak egindako deialdietara ere, parte hartzeko guneetara, herritarrek ez dira gehiegi gerturatzen. Beren kabuz antolatze direnetara agian gerturatzen diren arren, udalak sustatutakoetara zaila gertatzen da.

Aldi berean, jendeak ez ditu guztionak diren eraikinak, espazioak edo eta baliabideak zaintzen. Adibide gisa besteak beste igogailua erre edo hautsi izana aipatzen da. Beraz, zibismoan eragitearen garrantzia ikusten da.

Baliabideei dagokionean, egon badaude kolektibo batzuk egoera zaila bizi dutenak, gazte asko langabe eta une honetan langabetu asko bestelako babesik gabe daudenak. Guzti horri erantzuna eman behar zaio, baina aldi berean, dauden baliabideak mugatuak dira eta agian berrikuspen bat beharko luke behar berrietara egokitzeko.

Orokorrean beraz, balorazioa positiboa dela esaten da eta horrelako herri maila batentzat baliabideak espero baino hobeak direla; nahiz ohikoa denez, beti nahi izaten da daukaguna



baino gehiago izatea.

UDAL LANGILEAK: ARDURATZEN ETA BIZI DITUZTEN GATAZKA NAGUSIAK ETA HAUEN AURREAN EGINDAKO PROPOSAMENAK

Teknikariek beraien arloko gatazka nagusiak identifikatzeko orduan, beraien errealitate, ezagutza eta bizipenetatik abiatuta, bi esparru ezberdin aztertzeke eskatu zaie: Udal teknikariak beren esparruaren baitan dituzten Bizikidetza egoera eta gatazkak eta Orion, herri mailan, teknikarien ikuspuntutik, nabarmen ikusten dituzten gatazkak eta Bizikidetza oztopatzen dituzten elementuak.

HERRI MAILAN

Herri mailan nabarmentzen diren gatazken inguruan hitz egiterakoan, alderdien arteko gatazka oso agerian geratzen da. Hau da, Udal mailan alderdien artean dagoen eztabaida, herri mailara ailegatzen da. Hortaz, herria politizatuta dagoela azpimarratzen da eta herri txikia den heinean, politizazio hori zatiketan bihurtzen da.

Honek herriaren parte hartzearekin zerikusi zuzena dauka, Udalak proposatutako ekimenetan parte hartuko dute erakarrita sentitzen direnak, besteak aldiz, elkarte bezala zein herritar bezala, ez dute parte hartuko.

Gaur egun geroz eta gehiago nabaritzen da, herritarren jarrerak aldatu egin direla. Eskubideetan zentratutako diskurtsoak indarrak hartu du, eskaerak exijentzi maila handiarekin egiten dira eta eskatzeko formak ere asko aldatu dira. Egoera honen zergatia krisia, lan falta, eta abarretan egon daiteke, eta horrek ere krispazioa igo du eta jendea urduriago dator Udalara.

Aurreko bi puntuak begien bistatik alde egin gabe, hezkuntza arloan dagoen gatazka handia azpimarratzen da. Herria zatituta agertzen da Herri Eskola eta Ikastolaren arteko gatazka dela eta. Gatazka honek, komunitate osoari eragiten dio eta politika edo “alderdikeria”ren esparrutik ere eragin da. Bestalde, gatazka honek herritarren jarreretan eragina izan duela aipatu daiteke. Herria oso urduri dago gaiarekin eta hezkuntza alorrean ezer planteatzea zaila egiten da.



Agertu den beste puntu nabarmena elkarteak eta parte hartzearen ingurukoa izan da. Honetan ere azkeneko urteetan aldaketak nabaritu dira. Eta elkarteen artean helburu ezberdinak daudela ere agerian geratu da. Zenbait elkarte, Udalaren zain daude ekintzak prestatu eta bideratzeko; hau da, Udalari begira daude. Udala antolatzaile eta bitartekari moduan agertzea eskatzen zaio, kirol elkarteen artean batez ere. Hauen artean, kirolaren inguruan dituzten helburu ezberdinak nabariak dira, eta gatazka gehienak hortik datoz.

Orokorrean, elkarteekin agenda bateratu bat egitea zaila izaten da, eskaintza zabala egoten da baina askotan ekimenak batera egiten dituzte (egun berean bi, adibidez). Udaletxetik koordinazio egokia emateko, zailtasunak daude ordutegi ezberdinengatik, teknikariak eta elkarteak ordutegi ezberdinak dituztelako.

Momentuan gatazkarik ez badago ere, agian gatazka bihurtu litekeen beste puntu bat agertu da. Hau, zabor bilketaren ingurukoa da, eta momentuan ez badago ere, aurrerantzean kontutan izan eta prozesuak egiterakoan ikuspuntu ezberdinak aztertzea komenigarria dela aipatzen da.

UDAL MAILAN

Udaletxe barruan azaldu diren gatazkek bi multzo handietan banatu ditzakegu, alde batetik, **politiko eta teknikarien arteko funtzio banaketa eta antolaketa**. Eta bestalde, Udal mailako **komunikazio eta koordinazioaren ingurukoak**, teknikarien artean zein teknikari eta politikarien artean ematen dena.

Lehen atala jorratzeko, Udalaren esku ez dagoen gatazka bat aipatu da, sistema politiko berari eragiten baitio. Lau urtero agintarien aldaketak ekartzen dituen ondorioen inguruan izan da. Hau da, pertsona berriak, ohitura berriak, berrantolaketa, aurkezpenak,... Politika eta udal barruko ereduaren inguruan bakoitzak bere iritzia dauka eta zailtasunak sortzen dira. Honekin lotuta, ezinbestekoa ikusten da *funtzio eta rolen banaketa argi izatea*, politikari zein teknikarien aldetik Hau da, erabakiak hartzerakoan bakoitzak bere *zereginak eta betebeharrak ezagutzeko*. Bestalde, *politikariak* bere langileak dituela kontutan izan behar du, *talde lan bat osatuz, teknikariaren iritzi tekniko ere aintzat hartuz eta bakoitzak bere departamentua zein den argi izatea inportantea da*. Teknikariak oposaketak egiten dituzten bezala, *politikariak ere formazio*



bat jaso beharko lukete beraien eginkizunak zeintzuk eta nola bete behar dituzten ezagutzeko.

Aurreko puntuarekin lotuta, *zenbait gaietan koherentzia falta* dagoela aipatzen da. Pleno edo batzordetan *erabakitako zenbait gai ez direla betetzen* azpimarratzen da. Adibide bezala, euskararen erabilpenaren inguruan hartutako erabakiak aipatu dira.

Udalak arlo bakoitzean bere helburu eta politikak ditu eta horien arabera bideratzen ditu ekimen eta programak (nahiz batzuetan elkarte eta herritarrek ez konpartitu). Garrantzitsua da beraz, bere erabakiak hartzerakoan eta ekimen ezberdinak sustatzerakoan, zehaztutako ibilbide hori oinarri hartzea (kirol esparruan adibidez, udalaren helburuak eta lehentasunetan oinarrituta banatu behar dira dirulaguntzak).

Bigarren multzoa, lehen aipatu bezala, udaletxe barruko komunikazio eta koordinazioari dagokiona da. *Langile eta sail ezberdinen arteko komunikazio eta koordinazio falta* nabaria da. Honetarako tresnak eduki eta saiakera ezberdinak martxan jarri arren, langileak ez dituzte erabiltzen, hortaz, *sail ezberdinak burutzen dutenaren inguruko informaziorik ez dago*. Egun dauden tresnak eta aurretik martxan jarritako koordinazio mahaia martxan jartzea proposatzen da. Koordinazio mahaia funtzionatzeko, motorra izango den pertsona bat egotea ezinbestekoa ikusten da, dinamizatzaile bat eta bestalde mahaiaren zergatia eta nondik norakoak guztion artean definituko lituzkete.

Jarraian agertzen den taulan, eragile hauek luzatutako proposamenak jasotzen dira; idei zaparrada bat besterik ez den arren, interesgarria da aintzat hartzea:



BEHARRAK	PROPOSAMENAK
HERRI MAILAN	
Alderdien arteko eztabaidak, herriaren parte hartzean eragina dutenak.	Kultur mahaiarekin jarraitu, bertan elkartearen arteko eztabaidak izateko eta agendak bateratzeko.
Herritarren jarrerak; formak, eskubideak eta betebeharrak.	Udaleko eskaeren pausuak aurkeztu, eta eskaera zein justifikazio epeak argi eta garbi azaldu.
Hezkuntza arloko gatazka nagusia. Bi eskolen arteko desadostasunak.	Gatazkari aurre egiteko prozesua bilatu, bi aldeak ados egongo diren prozesua. Beste arloetatik bultzatzen diren ekimenetan, bi eskoletako haurrak nahasketa bultzatu, helduen gatazka ahalik eta eragin gutxien izan dezan haurrengan.
Egun gatazka ez den, baina aurre hartuz, zaborren bilketaren gaia.	Ezer erabaki aurretik, herri galdeketa edo erreferenduma egitea, behintzat herriak zer nahi duen jakiteko.
Parte hartzea eta elkarteak. Hauen arteko helburu ezberdinak.	Ekimenen agenda bateratua adostu. Elkarte eta udaletxearen arteko hartu-emana zaindu eta mantendu. Horretarako, eskura dauden baliabideak erabiltzeko kondizioak jarri; telefono zentralita, ordutegiak,... Elkarteei diru-laguntzak ematerakoan, Udal bezala dauden helburuak azpimarratu eta hauek betetzeko sustapen-neurriak ezarri.



BEHARRAK	PROPOSAMENAK
UDAL MAILAN	
Udal mailako komunikazio eta koordinazioa.	Koordinazio mahaia berriz martxan jartzeko arduraduna, zereginak,...antolatuta eta web orrian dagoen baliabidea ere behar den bezala erabili.
Politiko – tekniko rol eta funtzioen banaketa	Protokoloak adostu, erabakiak hartzeko, funtzioak betetzeko,... politiko eta teknikari bakoitzak bere zereginak zeintzuk diren jakiteko.



■ HEZKUNTZA ARLOA (IKASTETXE ETA ZERBITZUAK)

Buruturiko lan saioek ordu eta erdiko iraupena izan dute. Hiru dinamika egin dira ikuspegi orokorra jasotzekari begira: lehenengoa, Orioko ikuspegi orokorra jasotzeko balio izan digu eta ondoren, gatazkak identifikatu dira. Horretarako, partaideek, hiru galdera erantzun dituzte: hezkuntza arloko eragileek beren esparruaren baitan dituzten Bizikidetza egoerak eta gatazkak, Udalarekiko dituzten egoerak eta Orion, herri mailan, nabarmen ikusten dituzten gatazkak. Azkenik, azaleraturiko gatazken aurrean, proposamenak pentsatu ditugu egoera hori mantendu ez daitezen hurrengo urteetan.

HEZKUNTZA ERAGILEAK: ERREALITATEAREN PINTZELADA BAT

Bakeolatik zehazturiko hamar eremuetan Bizikidetzaren egoera baloratzeko eskatu zaie. Horretarako erabilitako dinamika “semaforoarena” izan da. Dinamika honen bitartez, hezkuntza arloko eragile ezberdinek Orioko udalerrriaren balorazio-argazkia atera dute.

AZTERKETARAKO ARLOAK
Gizarte ongizatea
Aisialdirako guneak eta jarduerak
Inplikazio soziala udalerrriaren garapenean
Kultur eskaintza
Osasun zerbitzuen kalitatea
Udalaren hezkuntza apustua eta laguntza
Ingurunea eta ingurumena
Arlo sozioekonomikoa
Udal kudeaketa (Orioko Udala)
Herritarren - segurantzza

Aurreikusten zen bezala, partaideak hausnarketa orokorrak, herrian kokatuak eta berariazko hausnarketak, ikastetxeko egunerokotasuna, egin zituzten arloak aztertzerakoan.



Jarraian, hamar arloen inguruan agertutako ondorio nagusienak aipatuko dira. Hauek kontutan izanda, ikastetxe eta Udal zerbitzuek daukaten Oriori buruz duten ikuspegi orokorra azalduko da.

Aztertutako hamar arloen inguruan parte hartutako eragileen ustez, orokorrean Orioko egunerokotasuna eta Bizikidetza ona dela ondorioztatu daiteke. Hala ere, azterketa arloka egitean zenbait puntu hobetzeko aurkitu ditzakegu.

Aipamen bezala esan, aztertutako hamar arloen artean ez da pegatina gorriarik atera; hau da, oso egoera larrian ikusten den arlorik ez da aipatu. Hau ere, positiboa dela esan beharra dago.

Azterketa orokorrean harturik, Orioko hezkuntza arloa eta zerbitzuek oso ikuspuntu positiboa daukatela esan dezakegu. Hau da, hobetzeko eremuak egon arren, zenbait arlotan egoera ona dagoela eta orokorrean oso ondo dagoela aipatu izan da, zerbait hobetzeko beti egon arren.

Orioko herria, herri lasaia dela aipatzen da eta ekintzak antolatzerakoan segurtasuna ziurtatzen dela baieztatzen da. Bestalde, herriko eta herritarren ondasunen kontrako jarrerak ere ematen direla azpimarratu da. Hauek, asteburu gauetan eman ohi dira, munizipalik ez dagoenean.

Krisi ekonomiko egoera honetan, Orio ere, azkeneko urteekin konparatuta, egoera zailean dagoela antzematen da. Herritarrek arazo ekonomikoak dituzte, eta honek herriko bizitzan eragina zuzena dauka.

Bestalde, egoera honetatik aurrera egiteko beste bide batzuk bilatu behar direla aipatzen da. Sormenerako bidea landu beharra dago.

Herri mugitua bezala definitzen da, beste herriekin konparatuta, herrian dagoen ekimen eskaintza oso zabala da, herriko zein Udalak antolatuta. Hauek aurrera ateratzeko, elkarlanerako eta herriko eragileen artean lan egiteko prestutasuna dago. Egia da ere, jendea



errazago inplikatzeko dela ekintza propioak direnean, beste elkarte batzuk edota Udalak antolatuta direnean, herritarrei asko kostatzen zaie parte hartzea.

Honekin lotuta, eta eragilearen arteko hartu-eman oso ona den heinean, beraien artean antolatzeko beharra aurkitzen dute espazioak bilatzerakoan. Herri bezala, espazio ertain baten falta nabaritzen da, zenbait ekimen aurrera ateratzeko hankamotz ikusten dituzte dauden baliabideak.

Udal kudeaketaren inguruan hitz egiten denean, orokorrean lotura gehiago egon behar dela baloratzen da, nahiz azken urteetan hobetzen joan den. Udaletxetik hartzen diren erabakiak kudeaketa neutrala izan behar dutela azpimarratzen da herri osoaren onura lehenetsiz eta alderdikieretatik urrunduaz. Kudeaketaren inguruan ere, udaletxeko burokrasia betetzea zaila izaten dela eta motelegia bihurtzen dela baloratu da.

Bukatzeko, balorazio zabalena izan duen arloa, hezkuntzakoak izan da. Partaideak zuzenean inplikaturik dauden arloak denez, errazago egiten zaie balorazioa egitea. Orokorrean eskaintza zabala dagoela aipatu da, eta konkretatzeko zerbitzuak ere hezkuntza formala zein ez formalean ematen direla argi geratu da. Herriak hezkuntza ez formaleko zerbitzuak hezkuntzakoak bezala ez dituela antzematen azpimarratu da. Ez dira hezkuntza espazio bezala bizitzen, jolasteko edo denbora pasatzeko guneak bezala hartzen dira. Orain dela pare bat edo hiru urte, curriculumaren inguruko lan bat egin zen, hezkuntza formala eta ez formala bilduz. Hortik ere lan bateratuta egiteko eta herriari erakusteko, herriak jakin dezan, hezkuntza ez dela bakarrik herri eskola eta ikastolan ematen dena. Lan honekin jarraitu eta herria sentibilizatzea beharrezkoa ikusten da.

Arlo honekin lotuta, Ikastola eta Herri Eskolaren artean dauden ikuspuntu ezberdinak agertu dira. Hauek, herrian eragin zuzena dutela argi geratu da. Bi ikastetxeak dituzten ikuspegi ezberdin horien ardatza nagusia, Udalak ikastetxearekiko duen jarreraren inguruan da. Batek zein besteak hezkuntza eskaintza berdintzearen aldeko ahaleginak egin behar direla ikusten dute, inor lagundu gabe. Herriak bera izan behar du autua egiten duena, alde batera edo bestera, inongo bide laguntzarik gabe.



HEZKUNTZA ERAGILEAK: ARDURATZEN ETA BIZI DITUZTEN GATAZKA NAGUSIAK ETA HAUEN AURREAN EGINDAKO PROPOSAMENAK

Hezkuntza arloko eragileek beraien arloko gatazka nagusiak identifikatu zituzten bere errealitate, ezagutza eta bizipenetatik abiatuta, hiru esparru ezberdin aztertuz: ikastetxe edo zerbitzuaren baitan, udalarekiko harremanetan eta herri mailan ikusten zituzten gatazka esanguratsuenak, Bizikidetza erraztu eta oztopatzen dituzten elementuak. Eta egoera hauek hoberantz egin dezaten proposamenak ere luzatu dituzte.

IKASTETXE EDO ZERBITZUAREN BAITAN

Arlo honetan bost eremu azpimarratu dira eta hauetan sortzen diren gatazkek sailkatu dira.

Alde batetik **errespetuaren** inguruan hitz egin da. Espazio material-fisikoak errespetatzeko arazoak daude, eskolaz orduz kanpo batez ere. Nabarmena da baita, ikasleen artean ematen den errespetu falta eta halako jarrerak geroz eta gehiago ikusten dira.

Honekin lotuta, guraso eta hezitzaileen artean ematen den harremanetan, zenbait kasutan arazoak sortzen dira hezitzaileen erabakiak, prozedurak, lan egiteko moduak errespetatzen ez direlako. Hezkuntza araututik at ematen diren espazio hezitzaileak ez dira hezkuntzarako espazio bezala aintzat hartzen, hortaz, bertatik ematen diren aholku, jarraipen,... ez dira kontutan izaten eta denbora pasa bezala hartzen dira.

Gurasoekin landu beharreko etxean ikusten den errespetu edo limite falta horiek. Eta etxean ematen diren mezuak gazteek nola transmititzen dituzten, nola ikusten dituzten,... Arazoak izaten dira haurren artean herri mailan hezkuntza formalean dagoen hausturagatik, eta zaila ikusten da.

Eragile ezberdinak ahaleginak egiten dituzte herriko haur guztiak batzeko eta lana elkarrekin egiteko.



Aurreko puntuarekin lotuta, eta hurrengo eremuan murgiltzeko, ikastetxeen arteko giroak herrian eragin duen giro, egoera eta gatazka berrien inguruan hitz egin da. Udaleko hezkuntza zerbitzuetatik Herri Eskola zein Ikastolako haurrei tratu berdina emateko taldeak nahasten dituzte, herriko haurra guztiak bateratuta egoteko. Honek, eragin zuzena dauka bi ikastetxeen arteko gatazkan eta gurasoak izaten dira arazoak sortzen dituztenak: ez dute begi onez ikusten bi ikastetxeetako ikasleak nahastea. Honek esfortzu handiagoa eskatzen die zerbitzuei, ikastetxeen artean dagoen gatazkari aurre egiteko ahaleginak egin eta egoerak beste gatazka berri batzuk sortu dituenek, zerbitzuak gatazka eraldatzeko baliabiderik ezin du erabili.

Beste eremu bezala herriaren parte hartzearen ingurukoa da, aurreko puntuarekin ere zerikusi zuzena daukana. Ikasleak parte hartzea eta inplikatzeko asko kostatzen dela aipatzen da. Nahiz eta esperientzi positiboak ere egon diren; hau da, belaunaldien arteko proiektuan asko inplikatu ziren, gazte zein heldu eta bertan sortutako kimika oso positiboa izan da.

Parte hartzearen inguruan hitz egiterakoan, pertsonak eskaini dezaketen denboraren inguruan eztabaidatu da. Hortik, denbora falta asko dagoela aipatu da. Esperientzia Eskolan dinamizatzailerak zein parte hartzaileak konpromiso asko egon arren ezin dute denbora gehiagorik eskaini. Eta gatazka berdinarekin aurkitzen dira irakasle eta begiraleak.

Bukatzeko, hizkuntzarekin lotuta agertzen diren egoera gatazkatsuak aipatu dira. Bi hizkuntza komunitate batera elkarbizitzaren duten heinean, nabarmena da ohiturak hizkuntza bat edo bestea erabiltzera bultzatzen gaituela. Hortaz, zenbait momentutan zaila egiten da bi hizkuntzen arteko oreka bilatzea.



IKASTETXEA EDO ZERBITZUA UDALAREKIN

Atal honetako gairik mamitsuena, bi ikastetxeen arteko gatazkaren ingurukoa da. Azpimarratzen dira **bi ikastetxeen arteko gatazkaren aurrean Udalak izandako papera eta momentu bakoitzean hartutako erabakiak**. Hezkuntza ulertzeko moduan dauden gatazkak, hitzarmena, diru-laguntzak,...

Baliabide materialen inguruan, nahiko lituzketen baliabide guztiak lortzerik ez dagoela aipatzen da.

Udalarekin daukaten harremanetarako batzuetan ez dakite norekin jarri behar duten harremanetan, zein den beren erreferentziazko teknikaria. Teknikari – zinegotzien artean gaizki ulertuak ematen dira eta funtzioen banaketaren gabeziak eragina zuzena dauka zerbitzuarentzat.

Udal zerbitzu bezala, batzuetan kanpokoa bezala sentitzen dira, zaila egiten da beti lana demostratu behar izatea. Udalean aldaketak ematen direnez, lau urtetik behin planteamendu guztiak dudatan jartzeak ekartzen du sentsazio hori.

IKASTETXEA EDO ZERBITZUA HERRIAREKIN

Herrian dagoen jarrera eta hezteko moduak dira gehien kezkatzen dieten gatazkak. Espazio publikoak mantentzeko sentsibilizazioa sustatzea beharrezkoa ikusten da. Baita, gurasoak ikasleen hezkuntzan inplikatzeko dauden arazoei aurre egitea ere.

Bestalde, azpimarratu nahi izan da kirol mundutik sortzen diren momentu gatazkatsuak. Hauek, taldeen arteko gaizki ulertuak eta konpetentziak sortzen dituzte, hezkuntzatik bultzatzen diren helburu hezitzaileak alde batera geratzen direlarik.



Bi ikastetxeen arteko gatazka arlo honetan ere azpimarratu da, gatazka honek hiru arloetan aipatu da, hortaz, bereziki nabarmena den gatazka dela esan dezakegu. Hezkuntza aukeraketak eragin zuzena dauka herritarren hartu emanetan eta hausturan (“edo nirekin edo nire kontra zaude”) eta inpartzialtasuna adierazteko zailtasunetan agertzen dela nabarmendu da.

Azpimarragarria da hezkuntza arloan dagoen gatazka aztertu eta bi ikastetxeen arteko elkar ulertzea ahalbidetuko dituen pausuak ematea garrantzitsua dela esparru bera gainditzen duelako eta herri osoan eragina duelako.



■ GIZARTE ARLOA (ELKARTEAK)

Elkarteetako partaideekin bi saio burutu dira, bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izan duelarik. Hiru dinamika egin dira ikuspegi orokorra jasotzekari begira: lehenengoa, Orioko ikuspegi orokorra jasotzeko balio izan digu eta ondoren, gatazkak identifikatu dira. Horretarako, partaideek, hiru galdera erantzun dituzte: elkarteek beren esparruaren baitan dituzten Bizikidetza egoera eta gatazkak, Udalarekiko dituzten egoerak eta Orion, herri mailan, nabarmen ikusten dituzten gatazkak. Ondoren, azaleraturiko gatazken aurrean, proposamenak pentsatu dira egoera hori mantendu ez daitezen hurrengo urteetan. Eta azkenik, proposamen hauen lehentasunak zehaztu dira.

GIZARTE ERAGILEAK: ERREALITATEAREN PINTZELADA BAT

Bakeolatik zehazturiko eremuetan Bizikidetzaren egoera baloratzeko eskatu zaie. Horretarako erabilitako dinamika “semaforoarena” izan da. Dinamika honen bitartez, elkarteetako eragile ezberdinek Orioko udalerriaren balorazio-argazkia aterako dute.

AZTERKETARAKO ARLOAK

Aisialdirako guneak eta jarduerak
Kultur eskaintza
Osasun zerbitzuen kalitatea
Udalaren hezkuntza apustua eta laguntza
Ingurunea eta ingurumena
Arlo sozioekonomikoa
Udal kudeaketa (Orioko Udala)
Herritarren - segurantzak



Aurreikusten zen bezala, partaideek arloak aztertzerakoan hausnarketa orokorrak, herrian kokatuak eta berariazko hausnarketak, elkarteetako egunerokotasunari dagokionak, egin zituzten .

Jarraian, hamar arloak aztertu ondoren agertutako ondorio nagusienak aipatuko dira. Hauek kontutan izanda, elkarteek Oriori buruz duten ikuspegi orokorra ikusteko aukera izango da.

Eragileen ustez, orokorrean Orioko egunerokotasuna eta Bizikidetza ona dela ondorioztatu dezakegu. Hala ere, azterketa arloka egitean zenbait puntu hobetzeko aurkitu ditzakegu.

Zerbitzuen kalitateari egiten zaion azterketa oso positiboa da. Orokorrean zerbitzu egokiak ematen dira eta herrian denetarik dagoela aipatzen da.

Gaur egungo egoerak hurrengo arloa zailtzen duela argi dagoela baieztatzen da. Hau da, arlo sozioekonomikoa asko sufritzen ari da. Oriok ez dauka industrialderik eta nabari da. Bestalde, garai batean arrantza zen estrukturalki irteera zeukan ogibidea, orain berriz, ez dago ia flotarik. Ez da mantentzeko zainketarik egin, beste gauza batzuei garrantzia eman zaiolako. Aipatzen da baita, turismoa bultzatu nahi izan dela besteak beste azpiegiturak eginez baina ez da asmatu.

Elkarte bezala, Udalarekin daukaten harremanetan burokrazia asko dagoela aipatzen da eta funtzionamendua oso mantsoa da, dirulaguntzak, eskaerak,... eta bestalde, udal kudeaketa bezala, Udalak elkarteekin duen harremanean hauei eskatzen zaien prozesuak ez dituela betetzen azpimarratzen da.

Herritarren segurantzaren inguruko arloa lantzean, orokorrean oriotarrak oso lasai bizi direla aipatzen da. Erdi gunea oinezkoentzat jartzea oso ideia ona izan dela aipatu da. Baina, aipatu dira baita, zenbait puntu hobetzeari begira; zentrotik bi kale haratago dagoen argitasun falta, bizikletan ibiltzeko guneak eta errespetua, bikien karroarekin ibiltzea, gurpildun aulki batekin ibiltzea,...adibide bezala aipatzen dira.



Momentu-arte gehien aipatu den egoera berriz ere mahai gainean jartzen da. Hezkuntza arloko gaiez hitz egitean, bi ikastetxeen artean dagoen gatazka agerian jartzen da. Horrek herriko giroan eragina handia daukala baloratzen da, bereizketa handia ematen delako. Bestela, arlo bezala ondo baloratzen da, hezkuntza formala zein ez formaleko eskaintza ona dela aipatzen da, kalitatezkoa.

Arlo honetan beste egoera bat ere azpimarratu zen. Udal liburutegiaren ordutegiaren inguruan goizetan itxita egoten dela aipatu zen, eta unibertsitatean dabilzan ikasleak zein herritarrek orokorrean ezin dutela zerbitzu hori erabili.

Herrian sustatu eta aurrera eramaten diren ekintzen inguruko balorazioa oso positiboa da, eskaintza zabala dagoela esan daiteke. Baina honekin lotuta, urtero eskaintza berdina egiten dela aipatzen da ere, eta hortik at zerbait berria egiten denean herritarrek atzera egiten dute. Ekimen bezala, beste askoren artean, pintxo-poteoa aipatu da, jendea animatzeko ekimena bezala.

Eskaintzaren inguruan aipatu beharra dago ere, gaztelekua eta gaztetxearen arteko adinarentzat eskaintzarik ez dagoela aipatzen da. Eta gaztelekuan sartu arteko adinarentzat ere ludoteka edo antzeko zerbitzuaren falta nabaritzen da.

Aurreko puntutik gehiegi aldendu gabe, inplikazio sozialaren inguruan hitz egiterakoan, beti pertsona berdinak daudela toki guztietan baloratzen da. Herritarrek ez dute ez parte hartzeko ezta antolatzeke ohiturarik ere. Kanpotik ikusita eta beste herrieekin konparatuta herri bizia dela aipatzen bada ere, barrutik ikusita, mugitzen direnak oso gutxi direla azpimarratu dute.

Aisialdi jarduerak ondo baloratuta badaude ere, aisialdi guneen inguruan zenbait proposamen daude. Eraikuntzak badaudela aipatzen da baina batzuk konpondu beharreko puntu dezente dituztela aipatzen da. Bestalde, negua iristean eraikuntza estalirik ez dagoela baloratzen da.



Gizarte ongizate arloan maila ona dagoela baloratzen da. Orain arte dagoena mantentzeko ahaleginak egin behar direla aipatzen da. Bestalde, gizarte ongizateetik laguntzak jasotzen dituzten herritarrak egon badaudela esan den bezala, hauetako batzuk laguntza horien erabilera batzuetan (edarirako, kafetegian gosaltzeko,...) okerra izaten dela aipatzen dute.

Hamar arloen balorazioarekin amaitzeko, bertaratutako elkarteek ingurugiroa eta ingurumena baloratu zuten. Topagune Berdea inizatiba oso positiboa bezala azpimarratu da, bertan, puntu beltzak identifikatu eta aipatu da udalera igorri dutela azterketa tekniko egin dezan, aipatu da. Dokumentu lagungarria osatu nahi izan dute, bertan bizikletentzako, oinezkoentzako eta kotxeentzako zenbait jarraibide sartu dira.

Baina orokorrean, herrian gaiarekin kontzientziazio maila txikia dagoela aipatzen da. Gizartea edo norberaren sentsibiltate falta nabaria da.

GIZARTE ERAGILEAK: ARDURATZEN ETA BIZI DITUZTEN GATAZKA NAGUSIAK ETA HAUEN AURREAN PROPOSAMENAK

Gatazka nagusiak identifikatu dituzte bere errealitate, ezagutza eta bizipenetatik abiatuta, hiru esparru ezberdin aztertuz: elkartearen baitan, Udalarekiko harremanetan eta herri mailan ikusten dituzten gatazka esanguratsuenak, Bizikidetza erraztu eta oztopatzen dituzten elementuak. Eta hauen aurrean proposamenak egiteko eskatu zitzaaien.



ELKARTEAREN BAITAN

Arlo honetan agertutako gatazka edo mantentzeko elementuak hiru eremutan banatu badaitezke ere, hiruak loturik doaz: elkarte barruan zein kanpora begira ematen den komunikazioa, elkarteetako lan banaketak eta parte hartzea eta barruan zein beste elkarteekin ematen den koordinazioaren inguruan.

Elkarteen baitan nahiz eta estruktura horizontala izan, lanen edo rolen banaketak ematen direnean gehienetan pertsona berdinak dira inplikatura daudenak. Eguneroko lanketetarako jende gutxi mugitzen bada ere, ekimen handiagoak aurrera ateratzeko eta momentuko laguntza bezala jende gehiago animatzen da. Genero ikuspuntutik, lan banaketa eta partaidetza nahiko parekatuta dagoela esan daiteke.

Parte hartzearekin lotuta, elkarte batzuetan faltan sumatzen da ordezkioak bilatzea zaila izaten dela. Herritar gazteak ez dira gehiegi animatzen elkarteetan sartzera, elkarteak galduta daude jende berria erakartzeko sistema bilatzen.

Hau guztiarekin lotuta, komunikazioaren elementua agertzen da. Elkarte barruan, nahiz eta komunikaziorako aroan egon, zailtasunak egoten dira behar den bezalako komunikazioa eman dadin. Eta bestalde, herriarekin komunikatzeko ere zailtasunak topatzen dira. Hau da, herriari informatzeko erabiltzen diren tresnak hobetu behar dira, herritar guztiak jakin dezaten elkarteak zer egiten duten, zer behar duten, nola dabilzaten,...

Eta orokorrean elkarte asko dago Orion eta beraz kideak ere bere baitan. Hala ere, ekimenak egiterakoan, badirudi besteen ekintzetara hurbiltzeko joerarik ez dagoela, norberak egiten duena bultzatu bai baina, besteek egindakoarengana, nekez.



PROPOSAMENAK:

Jarraian bertaratutako partaideak aurreko atalean aipatutako elkarteen barruan agertzen diren gatazkei aurre egiteko proposatutakoak azalduko dira.

Funtzio banaketen inguruan, beti pertsona berdinak ez egoteko eta elkartearen baitan aldaketak egoteko, beste talde batek beraiek erabiltzen duten sistema azaltzen du:

- ✓ *Gure elkartean oso ondo banatuta daude karguak, batzorde bat dago eta urtero aldatzen dena, talde erdia aldatzen da eta karguak banatzen dira taldearen arabera. Era horretara, elkarteko partaideak rol ezberdinak betetzeko aukera dute eta erreleboa ziurtatuta dago.*

Komunikazioa hobetzeari begira, elkarte barruan zein elkartearen artean komunikazioa eta koordinazioa sustatzeko, halako proposamenak agertzen dira:

- ✓ *Komunikazioa eta koordinazioa lantzeko, barrutik landuko nuke, aterpetxe batean elkarte ezberdinetako jendea joan tailer batzuk prestatu komunikazioaren inguruan, rol banaketen inguruan, asteburu bat, joan eta ahal dena lotu, elkarteetan gauden 50-100 pertsona horiek. Bertan, funtzionamenduak konpartitu, aholkulari batzuen laguntzarekin eta hortik akats fozilizatuak aldentuz, ideiak berriak landu,...*
- ✓ *Gonbidapena zabaldua, giro goxoan, elkarteentzat dedikatuta eta alderdiak ere, bertan parte hartzeko, herrian lanean dabiltzan guztiak parte hartzeko aukera izan dezaten.*
- ✓ *Udaletxeak gure artean koordinazio sarea sustatzea, eta saiatzea, kanpoko dinamizatzailerak batekin egitea*

ELKARTEAK UDALAREKIN

Atal honetan, elkarteak udalarekin duten hartu emanetan sortzen diren gatazken azalpenak eta hauen aurrean proposatutako irtenbideak zerrendatuko dira.

Elkarteak Udalarekin harremanetan jartzen direnean, edozein eskaera egin ahal izateko, **bete beharreko burokrazia oso handia eta motela dela adierazten da**. Aldiz, elkarte batzuk Udaletik jasotzen duten tratua inguruan, dirulaguntza batzuk atzeratuta kobratzen direla aipatzen da eta beste elkarte batzuk ezin dutela dirulaguntzik jaso adierazten dute. Bestalde,



deialdien epeak gainditzen direnean gogoratzen omen zaie elkarteei (ezer egin ezin daitekeenean) ez dutela behar den dokumentazioa aurkeztu. Garrantzitsua eta lagungarria litzatekeela uste dute harremana estuagoa balitz eta informazioa edo abisuak alde aurretik jasoko balituzte.

Bestalde, Udalak elkarteekin duen hartu emanetan, azkeneko hauek, batzuetan, erabilita sentitzen direla adierazten dute. Izan ere, elkarteek herriaren onerako lanean dihardutenez, beti saiatuko dira eskaerei modu baikorrean erantzuten baina eskertuko lukete beren iritzia alde aurretik aintzat hartuko balitz, egin beharrekoa lehenagotik azalduko balitzaie, etab.

Topagune berdea eratzearekin aurrera pausu inportantea eman dela adierazi da. Ingurumen arloan dabilzan elkarteak, udaletxearekin batera elkarlana sustatzeko gune bezala oso ondo baloratzen da. Hala ere une honetan zain daude uladak arlo honi ze erantzun ematen dion.

Elkarteak ezagunak izateko erabiltzen ohi duten bide bat Karkara aldizkaria izaten da. Bertan beraien ekimen batzuen berri ematen dute, iritzi artikuluak idatzi,...baina aldizkari honen bitartez ezin dute informazio guztia plazaratu, hortaz, zenbait ekintza eta elkarte inbisibilizatuta geratzen dira. Karkara aldizkaria oso ezaguna da herrian, ia herri guztiak irakurtzeko ohitura dauka, baina krisi ekonomikoa dela eta ahultasuna nabaritzen dela baloratzen dute. Udalak laguntza gehiago eman beharko liokeela aipatzen da, herriko hedabide inportantea delako eta herriak erabiltzen duelako. Gainera, komunikabide bezala ezagutzen den arren (produktu gisa), Karkarak badu planteamendu orokorragoa baina ez da ezagutzen. Oriotarrek ez dute komunikabide honen helburu orokorrak ezagutzen, zeinek sustatzen duen, zeintzuk diren laguntzaileak, etab.

PROPOSAMENAK:

Agertutako proposamenak bi multzo handietan banatu ditzakegu, alde batetik, elkartearen artean zein Udalarekin bultzatzeko koordinazioaren inguruan eta bestalde, Udalaren laguntzarekin komunikazioa eta inplikazioaren ingurukoa.

Elkarteez osaturiko batzorde bat sustatzea proposatzen da. Batzorde hau, Udalaren



laguntzarekin ekimenak burutzeko agenda bat antolatzeke aukera izango luke eta bide batez, elkarte bakoitzaren gora beherak ezagutu eta beharrak aztertuko lituzke.

Bigarren multzoaren inguruan, Udalarekin komunikazio zuzena izatea ezinbestekoa da, udal teknikariak elkarteak eta hauek egiten dutena ezagutu behar duela baloratzen da. Bide batez, elkarteak antolatutako ekimenetan parte hartzea eskatzen da. Era horretan batzuk eta besteak egiten duten lanaren errekonozimendua bultzatuko litzateke eta bestalde, herriak jakin dezan elkarteak eta herriko eragile eta mugimenduak burutzen dituzten ekintzen nondik norakoak.

Komunikazioa bultzatzeko, Udalak daukan web orriaz baliatzea proposatzen da, bertatik elkarteak egiten duten berri emateko. Baita, Karkara aldizkaria erabili eta diruz lagundu herrirako hedabide inportantea den bezala.

ELKARTEAK HERRIAREKIN

Azken atala aurkezteari begira, bertaraturiko partaideek herriarekin daukaten loturaren inguruan hitz egin zuten. Eta hartu eman honetan bizitutako gatazkak sailkatzen saiatu dira. Aipatutako gatazka gehienak, aurreko ataletan agertutakoak dira, Orioko herriak daukan dimentsiogatik elkarteen baitan, elkarteen artean zein Udalarekin dagoen harremanetan zentratzen baita herriarekin lotura ere.

Orokorrean, elkarteetan belaunaldi berrien falta sumatzen da. Herritarren artean gazteak gehiago mugitzea gustatuko litzateke, oso partaidetza txikia baitute. Populazio gazteak elkarteak egiten dutena ez dutela ezagutzen aipatzen da eta hortaz, inplikatzeko momentuan asko kostatzen zaie eta beraien lokaletan egoteko edo parte hartzeko ohitura baino ez daukatenez oso zaila egiten da beraingana iristea.

Orokorrean herria den bezala izanda, asko kostatzen da ekintza berriak sartzea, herri kontserbadore bezala baloratzen da eta filosofia aldaketak asko kostatzen direla diote.



PROPOSAMENAK:

Aurreko atalean agertutako gatazkei aurre egiteko, honako proposamenak plazaratu dira, partaideen aburuz aproposak izan daitezkeenak egoera horiei aurre egiteko.

Gatazka nagusienetakoa jendearen inplikazioa eta parte hartzearen ingurukoa denez, hauek erakartzeko planteamendu ezberdinak aipatu dira;

- Eskoletan gai ezberdinak lantzen direnean, gaiarekin lotura daukaten elkarteak beraien burua aurkeztera joan; zer egiten den, zertarako dauden, nola antolatzen diren...jendea animatzeko.
- Gazte jendearen artean gazte festak oso positiboak dira, hauen barruan jendea inplikatu, gaztetxean “ate irekiak” sustatu, jendeak bestelako espazioak ezagutzeko aukera izateko.
- Kultur teknikariarekin batera, gazte lokaletara joan, ezagutu eta beraien konpromisoa eskatu.
- Karkara aldiakariaren baliabidea erabili. Herria bertatik informatzen da eta hortaz, egitasmoa babestu behar da, bere helburua ezagutu, nork sustatzen duen,...

Karkaran bitartez, elkarteak beraien informazioaren berri ematea, parte hartzera animatzeko... eta guztien artean osatu beharreko baliabidea izatea, elkarte zein herritarren parte hartze eta inplikazioarekin osatutako hedabidea izateko.



VI. ONDORIO NAGUSIAK

Orioko herriari buruzko hainbat ideia eta egoera azaldu dira diagnostikoan zehar. Garrantzitsua da hala ere, era laburrean bada ere, bertan aipaturiko ideia nagusiak azaleratzea, horietan oinarrituko baita Bizikidetza eta Giza Eskubideen Udal Egitasmoa. Kokapen gisa biztanleriak gai hauen inguruan duen oinarritzko ikuspegia kontutan izateari begira, zera aipatu daiteke:

Giza Eskubideak, diagnostikoan parte hartu dutenen aburuz, biztanleria osoari bermatu behar zaizkion oinarritzko eskubideak dira. Pertsona izanagatik bizitza duina izateko bermatuta izan behar ditugun egoerak dira, bai oriotarra izan bai munduko beste tokiko herrikoa izan. Hala ere jakin badakite egoera hori gaur egun ez dela errealitatea eta hortaz, bermatzeari begira lanean jarraitu behar dela.

Bide beretik, bizikidetzaren inguruan hausnartzen dutenean, pertsonen arteko harreman positiboak azpimarratzen dituzte, errespetuzko jarrerak sustatzen dituztenak, ezberdintasunak onartu eta aniztasun horretatik elkarrekin bizitzeko aukera ematen dutenak. Gainera, eguneroko bizitzatik hasita bestelako planteamendu handiagoetaraino, **adostasuna sortzen duten eta komunean dituzten ideiei, balio, helburuetatik abituta sortzen joateari** garrantzia ematen zaio bizikidetza sustatzeko unean. Zentzu honetan, eragile guztien ardura bada ere, Orio bezalako herri batean, alderdikeriak eragin nabarmena izan ohi duela esaten da, askotan bizikidetza berari modu ezezkorrean eragiten diotelarik.

Orioko bizikidetzaren inguruan egiten den balorazioa, orokorrean, baikorra da eragile guztien aburuz. Herritarren arteko harremana, orokorrean, positiboa dela aipatzen da, partehartze eta elkartegintzari dagokionean dinamikoa eta bizi kalitate aldetik, horrelako tamaina duen herri batentzat, batazbestekoa baino altuagoa. Beraz, herriarekiko orokorturik dagoen ikuspegia da, **herritarrak gustura daudela**. Gero arloka lantzen hasita, hobetzeko aukera ere badaude, baina herriarekiko asetze maila altua orokorra da.



Bestalde, eta esperientzi baikorrak azpimarratzeari begira, badirudi eragile ezberdinen arteko elkarlana begi onez baloratzen dela, herriaren errealitatea aztertu eta proposamenak egiteko arloka sortu diren batzorde ezberdinek, bizipen positiboa eragin dutela partaideen artean. Orokorrean, **jendearen inplikazioa ona** dela azaltzen da.

Hau esanik, eragile batzuk, egoera positibo hau, krisiarengatik, eraldatuko ote den beldur dira. Izan ere, bizi baldintzak eskasten diren neurrian, harremanetan, bizi kalitatean, pertsonetikiko errespetuan eta bestelako egoeretan eragina izan dezakeela uste baitute.

Oriok berez, ez du industria gune handirik eta orain artean hartutako politikak ez dute espero bezalako fruiturik eman. Hortaz eta nahiz merkataritza zabala izan, lan munduan ez dauka aukera handirik (orain artean indarra zuen 1. sektorea ere beherantza etorri da eta alternatibarik ez zaio topatu). Guzti horrek, herritar batzuren egoera eta bizi kalitatea asko zaildu du.

Orioko eragile guztien ahotan esanguratsuak izan diren bi gatazka azaldu dira. Alde batetik, herrikoa, berezkoa duen **gatazka: bi ikastetxeen artean bizi dena**, eta eragile bakoitzak intentsitate ezberdinarekin bizi badu ere, herrian duen eragina aipatu da. Errealitate hau Orion kokatzen da eta badirudi ez dela oraingo bizipena. Belaunaldi ezberdinak bizi izan duten esperientzia da, alderdikeriak neurri baten eragiten du, pertsona batzuk gainera, oso inplikaturik daude gertatutakoarekin eta hainbat uneetan, egoerari **irtenbidea ere bilatzen saiatu den arren, orain artean ez da modu egokian bideratu**. Egoera honek ez du herriko bizikidetzan laguntzen eta une eta zerbitzu batzuen martxan ere, modu ezezkorrean eragiten duela esan daiteke.

Herrian bizi den beste gatazka nabarmenena, **alderdien arteko mesfidantza da**. Herria alde horretatik banatuta dago eta harreman pertsonaletara iristen da. Neurri batean, egoera hori **Euskal Gatazka Politikokoarekin** lotzen da eta aipatzen da gai horren inguruan ez dela lan berezirik egin. Azken urteetan mozioren bat edo beste izan diren arren, zailtasunak



nabarmenagoak izan dira adostasunak baino. Hala ere, gai honekin azpimarratzen den beste idea da egun errealitateak beste eszenatoki batean gaudela esaten duela eta pausuak eman daitezkeela zentzu honetan. Hau da, alderdien arteko harremanetan oraindik malgutasun gutxi egon arren, aurrerapausuak ematea garrantzitsua dela, eta ondorioz, **adostasun zabalagoak hartzeko aukeraz aprobetxatzeko garaia dela.**

Bi gatazka hauez gain, badira beste batzuk azpimarratzen joan direnak eta herriko eragile ezberdinen arteko bizikidetzan eragina dutenak. Aipatutako egoeren artean, koordinazio guneen beharra ageri da. Badirudi une honetan hainbat batzorde eratu direla eta beste batzuk aurreko legealditik lanean dihardutela. Guzti hauek babestu eta ondo baloratzen dira. Baina horretaz gain, garrantzitsua ikusten dute **eragileen arteko lotura gehiago, harreman handiagoa eta koordinazio gune sistematizatuagoak eratzea.** Horrelako espazioetan, elkarlana zuzenago egiteko aukera dago, elkarrekin egitasmoak egin eta antolatze bidea erekitzen da eta elkarrekiko konfidantza ere areagotzen da, eragile bat eta bestearen nahiak, beharrak, beldurrak, aukerak, mugak e.a. gehiago ezagutuz. Honela bada, hainbat koordinazio esparru aipatu izan dituzte: politikari eta teknikarien artekoa, teknikarien artekoa, udal ordezkariak (politikari eta teknikoak) eta elkarteetan dabilenak, elkartearen artekoa eta baita herritarren eta ganontzeko eragileen artekoa ere. Horrelako esperientziei esker, helburuak uztartu, baliabideak modu eraginkorragoan erabili, koordinazio akatsak gainditu, erreferentziazko pertsonak ezagutu, burokrazia lanak egokitu, lana elkarlanean burutu, e.a. lortzeko aukera izango litzatekeela aipatzen da.

Herri honetan, eragile ezberdinen aburuz, **partaidetza altua da.** Egun indarrean dauden batzordeetan eragile ezberdinek parte hartzen dutelako, Orio bezalako herri batentzat dagoen elkarte kopurua altua delako, herrian sustatzen diren ekimen asko elkarteek beraiek antolatzen dituztelako eta herriko pertsona batzuk, inguruko herrietako elkarteetan ere lanean dihardute, besteak beste. Baina hori esanda, **elkarte barruko errealitatean, zailtasun batzuk agerian geratzen dira.** Alde batetik, denbora eskasa dagoela egin nahi den guztia aurrera ateratzeko eta bestetik, badirudi eguneroko lanerako partaide eta “langile” kopurua ez dela hain esanguratsua, kide bera hainbat elkarteetan dabilela, antolatutako ekintzetara



ez dela espero bezainbat pertsona gerturatzen, kide berriak erakartzea zaila dela, etabar. Horrekin lotuaz, gazteen partaidetza ere zalantzan jartzen dute. Ikastetxeetan asko kostatzen da gazteak ekimen ezberdinetan inplikatzeko eta eskolaz kanpoko elkarteetara ere ez dira nahi hainbeste gerturatzen. Eta arestian esan bezala, elkartearen arteko hartu eman ere nahi baino urriagoa da.

Partaidetzaren ideia agertu zenean beste egoera bat ere islatu zen. Komunikazioaren garaian inkomunikazioa zabaldua dagoen errealitatea da. Hau da, eragileek elkarren berri ez daukatela eta horren arrazoietakoa bat komunikazio falta dela adierazi zen. Badirudi eragileen artean hutsuneak daudela informazioa helarazteko, eskariak egiteko, antolatutako ekimenak hartzaileei urreratzeko, etabar. Karkarak egoera honetan asko laguntzen duen arren, erreferentzia omen da eta, ez da behar guztietara iristen eta une honetan ere, komunikabide bezala, zailtasunak agerian uzten ditu. Eta bestalde, komunikabideen erabilpena ere, ez da egokiena kasu askotan.

Bizikidetzarekin lotu den beste ideia bat, **errespetozko jarrerarena** izan da. Orokorrean herri lasaia eta giro onekoa dela esaten da. Segurtasuna ere ezaugarri bezala agertzen da, pertsonak ez dute beldurrik herrian barrena ibiltzeko eta modu baikorrean agertzen den bizipena da gainera. Eta herri mailan egin diren ekintza batzuk, herritarren arteko harreman baikorra sustatzearekin errespetua areagotzea lortzen dela aipatzen da. Besteak beste espeirentzia eskola eta eskoleko haurrekin egin diren egitasmoak agertu dira, edo musika eskolak ikastetxe ezberdinetako gazteak espazio berean elkartzeko egiten duen esfortzua agertzen dira besteak beste. Baina, aldi berean bestelako egoera batzuk ere azaleratu dira. Hauen artean, **pertsona batzuk jarrera desagokiak dituzte beraien harremanetan** edo beste eragileekin (“eskubideak” bakarrik exijituz), bi hizkuntza komunitate ezberdin daudenez sortzen diren egoera batzuk, ezberdintasuna eta aniztasunaren aurrean agertu ohi diren zalantza eta mespretxuak (integrazioa zailtzen dutenak, erabaki pertsonalak zalantzan jartzen dituztenak, ...), eta tira, egon diren udal mozio ezberdinak kontutan izanda, pertsonen arteko berdintasuna eta errespetuarekiko pausuak ematen jarraitu beharko da egun ez baitira bermatzen. Baina errespetu ezako egoerak ez dira pertsonen artean bakarrik izaten,



bestelako egoeretan ere eman ohi da. Hauen artean, **herri-altzari ezberdinek jasan dituzten txikizioak** aipatzen dira. Guztionak diren baliabideak ez dira behar adina zaintzen eta ondorioak denen kalterako dela aipatzen da.

Diagnostikoan zehar ateratako errealitateari erantzunez, eragile ezberdinek **egoki ikusi dute Bizikidetza eta GGEEen arloan bide adostu bat zehaztea**, eragile guztiak aintzat hartuko dituen eta arlo hau modu konsziente eta antolatuan bideratzea. Eragile ezberdinek gainera, bide honetan eman beharreko pausu eta proposamen ezberdinak ere urreratu dituzte zehazten den ibilbide horretan lagungarri izan bedi.



3. UDAL PLANAREN ILDO NAGUSIAK

Jarraian Orioko Bizikidetza eta Udal planeko oinarrizko ideiak azaltzne ditugu.

4.1. MISIOA

Misioak zera jasotzen ditu, Planak gaur egun eta etorkizunean zentzua emango dion xede eta oinarrizko elementuak.

Orio Bizikidetza eta Giza Eskubideak sustatzea da helburua eta horretarako gizalegetasuna, bakerako hezkuntza eta Giza Eskubideak bermatu behar dira eragileen partehartzea bermatuz.

4.2. IKUSPEGIA

Orioko Bizikidetza eta Giza Eskubideen Planaz haratago, etorkizunera begira zer nolako herria izatea nahiko lukeen zehazten du.

Hortaz, bizikidetza eta Giza Eskubideen Udal Plana mugatzen da:

- Egunerokotasunean, Giza Eskubideen ezagutza, defentsa eta sustapenean **Udalerri aktiboa izatea**.
- Gizalegetasuna, bakerako hezkuntza eta Giza Eskubideak oinarri dituen **Udal koordinatua izatea**
- **Eragile ezberdinen** arteko benetako **sarea** duena: zabala, aktiboa, koordinatua, eta Udalerrian (eta Udalean) inplikaturik dagoena.



4.3. BALIOAK


Balioak, inplikaturik dauden eragile guztien eta orokorrean biztanleria osoaren jarerak bideratzen dituzten oinarritzko aspektu multzoak dira. Kasu honetan Orion azpimarratzen direnak hauek dira:

- Eguneroko bizikidetzan **Giza Eskubideak** bere osotasunean: ezagutzen, defendatzen eta urraketa kasuetan salatzen.
- **Kaltearen ordaina, Aitormena eta Gizartearen berrasdikidetzea**, gatazkarena urrean adostasunak sustatzen.
- **Anistasuna eta gizarte kohesioa** bermatzen dauden errealitate ezberdinetan.
- Eguneroko bizikidetza **bake kulturen** oinarritu, gatazkaren eraldaketa positiboan sakonduz.

4.4. PRINTZIBIO GIDARIAK.

Printzipio gidariak antolakuntza zehaztu eta bideratu beharreko metodologia eta prozesuak definitzen dituzte. Orioko lan ildoak zehazteaz gain, partaide ezberdinengandik jasotako ideian arabera garrantzitsuenak diren printzipioak hauek dira:


- **Partaidetza:** Eragile guztiak aintzat hartu behar du zehazturiko planak, denek partehartzea bermatu. Baina partehartze hau egonkorra izatea garrantzitsua ikusten da, hartu emana jarraian izatea eta espazio edo gune hauetan iritzi aniztasuna bermatzea, Orioko herrian dagoen pluraltasunaren lekuko.
- **Unibertsaltasuna:** Udalak sustatzen dituen politikak GGEE oinarri izatea, eta pertsona guztiengan bermatzea ere garrantzitsua da. Horretarako, politika aktiboak bideratu behar dira, helburu hori bermatze aldera.
- **Integraltasuna/zeharkakotasuna:** Orio sistema bat bailitzan ikustea, arlo eta gune guztiek elkareragiten dutela barneratzeaz gain, ikuspegi honetatik politika bultzatzea. Horregatik garrantzitsua da ideia hau gizarte mailan, gizarteko eragile ezberdinen artean eta Udal barruan ere barneratzen joatea.
- **Aniztasuna:** Herrian dauden ideologia guztiak aintzat hartzea (Udal gobernuan egon edo ez), Oriotar guztien aldeko Udala izateko pausuak ematea eta iritzi ezberdinak entzun eta errespetatzeko bermeak jarri.



4.5. ILDO ESTRATEGIKOAK

Udalak berak sustatuko dituen arlo garrantzitsuenak zehazteaz gain, ildo bakoitzetik lehenestuko dituen ekimenak jasotzen ditu. Izan ere, ildoek epe motz, ertain eta luzerera burutuko diren ekimen xorta antolatzen dituzte.

Orioko udalaren ildo nagusiak hauek izan daitezke modu eskematikoan azalduta:





KOORDINAZIOA: Eragileen arteko elkarlana ahalbidetuko duten espazio eta baliabide egonkorak sustatu

- Udal barruan, (egon izan diren) espazio ezberdinak sortu (“mahaiak”) eta bertatik udalak nahiz herriak arlo bakoitzean dituen beharren inguruan azterketa integrala egin eta ekimen egokiak proposatu (zeharkakotasuna bermatzeko bide egokia izan daitekeelarik).
- Herriko beste eragileekin koordinazio gune egonkorak antolatu eragile ezberdinen arteko harremana, talde lana eta partaidetza bermatzeko.
- Herri mailan nahiz bailarako mailan egon ez dauden baliabide ezberdinen sustapenerako elkarkidetza sustatu.

Ekintza posibleak:

- Udal politikarien arteko espazio egonkorra bermatu, politika nagusien aurrean adostasunak lehenetsiz.
- Gune egonkorak sustatu udaleko arlo/sail ezberdinen artean, elkar ezagutza eta elkarlana sustatuz.
- Harrera plana baten definizioa burutu eragile bakoitzaren funtzio eta egitekoak ezagutu ditzaten (politikari nahiz teknikarientzat lagungarria).
- Udal eta herriko eragileen arteko elkarlana sustatzeko gune zehatz eta egonkorak zehaztu bertatik beharrak detektatu eta erantzunak bilatzeko.
- Eragile ezberdinen arteko harremana/sarea sustatu (ikastetxeetan elkartearen presentzia areagotu, elkarren ezagutza bermatuz)



TREBAKUNTZA: GGEE eta Bizkidetzaren egoki baterako eragile guztientzat formakuntza ezberdinak eskaintzea

- Eragile ezberdinek (udal ordezkari, teknikari, hezkuntza formal eta ez formal nahi elkartegintzako eragileak) GGEE eta Bake kulturen dauden beharrei aurre egiteko formakuntza eta trebakuntza ezberdinak garatu.
- Euskal gatazkaren inguruan hausnarketa egoki baterako, kontzeptu batzuen inguruko sakonketa eta trebakuntza bideratu eragile ezberdinen artean.
- Bake kulturarako eta bizikidetzarako hezkuntza arloko eragileei formakuntza bereziak eskaini egiten duten heziketa lanetan kontziente egin dezaten (ez haur eta gazteei soilik).

Ekintza posibleak:

- Bakea, gatazkaren eraldaketa positiboa eta bake kulturen oinarritzako formakuntzak eragile ezberdinei eskaini.
- Euskal Gatazka politikoak izandako bizipenen inguruan hausnarketaz gain, oinarritzako kontzeptuetan formakuntza eskaini eragile ezberdinei.
- Hezkuntza arloan dauden beharrak elkarrekin detektatu (Udal Kontseiluan adibidez) eta eragile ezberdinen proposamen ezberdinak aintzat hartu egitasmoak garatzeko orduan.
- Eguneroko gatazkak kudeatzeko erremintak eskaini: formakuntza eta trebakuntza norberak kudeatu ditzan eta bitartekaritzaren elementuetan sakontzen has daitezkeen orokorrean. Eta udaleko eragileren bat bitartekaritzan formatzen hasi herriko ohiko gatazkei irtenbide positiboak sustatze aldera.



KOMUNIKAZIOA: Eragile guztien arteko komunikazio bide egokiak, baliabideak eta hauen erabilpen egokiak sustatzea.

- Udal barruko komunikazio zuzena ahalbidetuko dituen sistema ezberdinen diseinua burutu (teknologia berrien egokitzapena, komunikanideen erabilpen egokia, e.a.)
- Udalak herriko eragileekiko komunikazio jarraia izatea (konfiantza giroa bermatzea, dirulaguntza deialdiak abisatzea, memoriak aurkezterako erraztasunak jartzea, e.a.).
- Egun herritarrentzat egokiak diren komunikaziorako erreminta egokiak mantendu, babestu, eta ahal den neurrian indartu eta gaurkotu (aldizkariak, sare sozialak, e.a.)

Ekintza posibleak:

- Udal barruan komunikaziorako espazio zehatzak ahalbidetu (intraneta, egutegi koordinatuak, espazioak, agendak elkarren berri izateko, eskari orriak, baldintzen azalpen inprimkaiak, e.a.).
- Herri mailako agenda bateratuaren sustapena (adibidez, udalak burututakoari eragile ezberdinena batuaz).
- Komunikazio egokiaren abantailen inguruko sentsibilizazio kanpainak garatu (errespetuzko jarrerak azpimarratu, elkar entzuteko baliabideak, adierazteko modu ezberdinak agertu, e.a. elementu hauetan sakonduz)
- Karkara aldizkariaren benetako balioaz jabetu, babestu eta etorkizuna ziurtatu egun duen presentzia soziala eta bettzen duen papera bermatzeari begira.



PARTAIDETZA: Partehartzeko kultura sustatzeaz gain, espazioak ahalbidetu aniztasuna duten pertsonen artean elkartzea ahalbidetu, gutxieneko adostasun planteamenduak sustatu, e.a

- Egun Orion bizi den gatazka esanguratsuenetakoa den ikastetxeen artekoa gainditzeko espazioak sustatu.
- Herritarren partehartzea udalak bultzatutako egitasmoen oinarrian egotea bermatu.
- Partaidetza egoki bat bermatzeko erremintak urreratu.

Ekintza posibleak:

- Topagune berdea bezalako esperientzia oso baikor baloratu denez, anzteko guneak eskaini. Aurrerantzean ere, partaidetzarako erremintak erraztu (formazioa, espazioak, baliabideak, ordutegien egokitzapena, telefono ordutegi egokiak, e.a.). Eragile ezberdinen arteko topaketa sustatu daiteke (eskar ezagutu, elkarre baten funtzionamenduan sakondu, herri mailako ikuspegia landu, e.a.)
- Herri osoari eragiten dieten erabakietan, herri galdeketa egiteko aukerak aztertu, eta bultzatu (zaborraren ingurukoa aurreikusten da).
- Herrian bizi diren gatazka ezberdinetan, protagonistak inplikatu irtenbideak bilatzeko orduan (ikastetxe, dirulaguntza ezberdintasunak, hiri-altzarien ingurukoak, e.a.elkarrizketa guneak)
- Burutzen diren ekimen ezberdinetan eragile ezberdinen inplikazio eta partehartzea bermatu (herritarren arduratasuna, korrespontsabilitatea eta eskubide-betebeharren inguruko hausnarketa erraztuz).



SENTSIBILIZAZIOA: GGEE eta Bizikidetza balioetan herritarrak sentsibilizatu, bereziki bizi izandako urraketak errepika ez daitezen.

- Azken urteetan bizi izan diren GGEE urraketan eta indarkeria ezberdinen inguruan azterketa kritikoa egiteaz gain etorkizunerako bake kulturen oinarrituriko jarrerak eta hausnarketak bultzatu.
- Oroimen historikoa berreskeuratu, gertatutakoak ezagutu (Egia), epaitu (Justizia), aitortu (Aitortza) eta errepika ez dadin erremintak urreratu.



Ekintza posibleak:

- Orioko Oroimen historikoaren alde lan egin, gertatutakoak ezagutzeko ikerketak garatu, justiziaren aldarrikapenerako pausuak eman eta herri mailan behar diren aitortzak burutu.
- Egindako lanaren ondorioak gizarteratu formatu ezberdinak erabiliaz, norbanakoaren jarreraren garrantzia azpimaratu eta errepika ez dadin kontzientzia hedatuz.
- Euskal gatazka politikoak herrian eragindakoaren inguruan elkarriketak burutu ergaile ezberdinak inplikatzuz.

Garrantzitsua da urtero ildo hauetakoren bat lehenestu eta erantzun bateratu eta planifikatu bat ematea arlo/sail ezberdinetatik.